# GLOBALIZAZIOA ETA MUNDUKO SISTEMA EKONOMIKOA

## 1.GAIA: Munduko ekonomia egoera orokorra

**1.1. Sarrera: mundu dispareko bat.**

---

**1.2. Herrialdeen sailkapenerako irizpideak.**

**<u>1.1.1 Herrialdeen sailkapena:</u>**

<u>1. Irizpide globala:</u>

- Iparra-Hegoa, Zentro-Periferia

- Lehenengo, Bigarren eta Hirugarren Mundua

- Mendebaldea-Ekialdea:

. Merkatu-ekonomiak (Mendebaldea)

. Planifikazio zentraleko ekonomiak (Ekialdea)

* 1. Mundua: Iparra: Garatutako Herrialdeak (industrializatuak/aurreratuak)

2. Mundua: Ekialdea: SESB eta Europako Ekialdea (Trantsizio bideko ekonomiak)

3. Mundua: Hegoa: Garapen bideetan dauden Herrialdeak

<u>2. Irizpide geografikoa:</u>

<u>3. Irizpide analitikoak:</u>

. Herrialde garatuak vs. Garapen (bideko) herrialdeak

. Sailkapenak adierazleen arabera:

- Munduko Bankuak (MB):

*Biztanle bakoitzeko errenta – BPG p/c*

- Nazio Batuen Garapenerako Programak (NBGP):
(Gazteleraz: Programa de Naciones Unidas para el Desarrollo, PNUD)

*Giza Garapenaren Indizea (GGI)*

**<u>1.1.2 Oinarrizko zenbait kontzeptu:</u>**

a) <u>Hazkunde ekonomikoa (aldagaia: BPG</u>): herrialde batek ekoiztutako balorea. Herrialde jakineko ekonomiaren hazkundea da (aldaketa kuantitatibo positibo bat, alegia). Produzitutakoaren balioa bi epeen artean igo egiten bada hazkunde ekonomikoa dugu. Ez ditu garapen ekonomikoa eta soziala bermatzen eta guztiz kuantitatiboa da.

Adierazlea: aldakuntza tasa→ BPG'-BPG/BPG (gastu, errenta edo balio gaineratuaren arabera neur daiteke BPGa).

* Aldakuntzaren bitartez positboa zein negatiboa dela ondorioztatu ahal dezakegu formula jarraitzen. Positiboa bada hazkunde ekonomikoa dekogu (hedaldia egongo da positiboa mantentzen bada denbora tarte handian). Negatiboa izanda, atzeraldia (recesion) egongo dela ondorioztatuko dugu BPGaren datuak jarraitzen.

b) <u>Garapen ekonomikoa:</u> industria+zerbitzuak+aldakuntza-tasa sostengatua+errenta per capita

.Irakurketa kualitatiboa dauka → ikuspuntu ekonomiko batean oinarritutako modernizazioa. Herrialde jakineko bataz besteko "bizi-mailara" hurbilketa . Aldaketa sektore-egituran: Nekazaritza υ Industria+Zerbitzuak

Lehen adierazlea: Buru bakoitzeko errenta (BPG/biztanle kopurua) edo errenta per capita.

c) Giza garapena:

*"Giza garapena helburua dugu, hazkunde ekonomikoa horretarako bitartekoa besterik ez da"* (NBGP).

Adierazlea: Giza Garapenaren Indizea (GGI)

d) Garapen iraunkorra:

• "Garapen Iraunkorra egungo belaunaldiaren beharrizanak asebetetzen dituen garapena da etorkizuneko belaunaldiek beren beharrizanak asebetetzeko ahalmena arriskuan jarri barik" (Nazio Batuen Ingurumen eta Garapen Batzordeak, 1987).

---

**1.3. Garapen sozioekonomikoko adierazleak eta iraunkortasun adierazleak.**

GARAPEN ADIERAZLEEN alorrean, 2 ikuspegi nagusi:

**1.3.1 Munduko Bankua:**

-Garapena: **BPGaren hazkunde epe ertain-luzean.**

-Adierazlea: renta per cápita dolarretan.

*Herrialdeak beren errenta per capitaren (2018) arabera sailkatzen ditu:

- Errenta garaiko herrialdeak: 12.055 $ edo gehiago
- Errenta ertaineko herrialdeak:
- Errenta ertain garaia: 3.896 eta 12.055 $ bitartean
- Errenta ertain baxua: 996 eta 3.895 $ bitartean
- Errenta baxuko herrialdeak: 995 $ edo gutxiago

-Errenta per kapitan: BPG, biztanleria eta ganbio-tasak bakarrik kontuan hartu.

Adierazle gisa BPG (edo NPG) p/c-ak azaltzen dituen **arazoak**→

. BPGan aldaketak, biztanleria kopuruan aldaketak eta ganbio-tasatan aldaketek eragiten diote.

. BPGa dolarretan adierazten da baina "dolar baten" erosahalmena ezberdina da herrialdez herrialde. Erosahalmen Parekotasun (EP) metodoak dibisa ezberdinen erosahalmena identifikatuko du.

. Soilik hartuko ditu kontutan merkatutik pasatzen diren ondasun eta zerbitzuak.

. Ez du kontutan hartuko zein eratako ondasunak produzitzen diren (adibidez, berdin dio armak edota elikagaiak produzitzea).

. Ez du kontutan hartuko populazioan ematen den errentaren banaketa.

. Ez ditu kontutan hartuko egindako ingurumen-kalteak eta/edo kalte sozialak.

**- Errenta banaketa neurtzeko (disparekotasuna):**

Lorenz-en kurba 0-1 artean (más a menos equitativo). Errenta pertsonalaren banaketak duen disparekotasuna azaltzeko dugun adierazpen grafikoa da.




GINI indizea:

Banaketa-disparekotasuna azaltzeko Lorenz-en Kurban oinarritutako adierazlea dugu

Giniren Indizea = Azalera (ACB) / Azalera (ADB)

Giniren Indizeak 0 eta 1 arteko balioa izango du.

0: banaketa guztiz berdintsua

1: disparekotasun maximoko banaketa

Kurbaren azalera zati triangeluaren azalera=GINI.

+0,45: GINI dezentea. Transferentzia aurretik eta transferentzia eta gero kalkulatu daiteke GINI indizea.

* Gini indizea ez da portzentajetan inoiz agertzen.

Palmaren Indizea:

. Banaketa-disparekotasuna azaltzeko adierazlea dugu, zeina populazioaren %10 aberatsenen eta %40 pobreenen errentaren arteko erratioan oinarritzen den.

* Diferentziak zenbat eta dispareagoak izan errenta desberdinak izango dira, bestela askoz parekoak izango dira.

- **Erosahalmen parekotasun metodoa (EP)**

Herrialde ezberdinetan ondasun mota berdinarekiko dibisek duten erosahalmena neurtzeko metodoa da.

- Kalkulatzeko, herrialde bakoitzean komuna den ondasun eta zerbitzuen saski bateko prezioak konparatzen dira moneta jakin batean, normalean dolarretan.

. Bizi-maila ezberdinak konparatzeko oinarrizkoa da.

. Nazioarteko konparaketak egiteko egokiagoa da.

. Errentaren arabera egindako herrialdeen sailkapena nabarmenki aldatuko da:

Ganbio-tasaren bitartez egindako herrialde txiroenen azpi-balorazioa zuzenduko du; eta, alderantziz, behera joko ditu zenbait herrialde aberatsen BPG p/c-ren balorazioak nahiz eta aldaketok ez diren hain nabarmenak.

➔ Ekonomia bateko tamaina besteekin konparatzeko herrialde horretako BPGa (bere monetan adierazita) komuna den moneta batera eraldatu behar da; bi metodo:
1) Ganbio merkatuko **ganbio-tasak** (g/t) erabili ⇒ Estatu Batuetako dolarretara eraldatu.
2) **Erosahalmen Parekotasunean (EP)** doitutako ganbio-tasa erabili ⇒ herrialde bateko monetak beste batenera eraldatzerakoan jasan beharko lukeen tasa bietan ondasun eta zerbitzu kantitate berbera erosi ahal izateko (nazioarteko dolarrak).

*EPean Hegoaldeko ekonomiak merkatuko g/t-an baino handiagoak dira; Iparraldekoak berriz, gutxi aldatu ⇒ *aberats eta pobreen* arteko distantzia murriztu.

IPARRA: Iparramerika, Eu. Mendebaldea, Japonia, Australia, Zeelanda Berria = %51,1.

EKIALDEA: Eu. Ekialdea* eta Estatu Independenteen Erkidegoa = %5.

HEGOA: Latinoamerika, Afrika, Asia (Jap., sobietar ekonomia ohiak izan ezik) = %43,9.

* UNCTAD: Iparrean sartu Europar Batasunean sartzen diren Ekialdeko ekonomiak; NMFak, ordea, aurreratu (Iparra) kontsideraten ditu horietariko batzuk baina ez denak.




**Ze eragin sortarazten ari da Covid-19a munduko ekonomian?**
Atzeraldi ekonomikoa: BPGaren jaitsiera (aldakuntzatasa negatiboa).
Horren ondorioz: garapen ekonomiko txikiagoa (errenta p/c-ren murrizketa).

## 1.3.2 Nazio Batuen Garapenerako Programa (NBGP – PNUD)

- 'Giza Garapenaren' kontzeptua 90eko hamarkadan zabaltzen da. Oinarriak:
  - Amartya Sen-en teoria (Nobel Saria, 1998).
  - NBGP-ak egindako proposamena (Giza Garapenari buruzko Txostenak).

- Garapena neurtzeko adierazle alternatiboa*: Giza Garapenaren Indizea (GGI - IDH).*

**- Giza garapena: hazkunde ekonomikoa giza garapenerako bitartekoa (PNUD). Adierazlea:IDH**

Garapena ikuspegi zabalagotik kontuan hartzen da: Garapena gizakien ahalmen, gaitasun eta aukeren hedatzea izango da. Giza Garapenaren kontzeptua: gizakion ahalmen, gaitasun eta aukeren hobetzea. Garapena ez ekoizpenaren handitzea, baizik eta pertsonen gaitasuna. Dimentsio sozialak barneratu, ez bakarrik ekonomikoak

Giza garapenaren sorrerak aldaketa nabarmena suposatu zuen, bi arrazoi direla eta:

- Garapen-prozesuaren xedea ez da produkzioa handitzea izango, baizik eta pertsonen gaitasunak handitzea.
- Bestetik, giza garapenak giza kapitalari ematen dio lehentasuna, eta ez kapital fisikoari. Bizitza luze eta osasuntsua (bizi itxaropen indizea)+ezagupenak (hezkuntza-maila)+ondasun eta zerbitzu nahiko izatea bizi-maila duina izateko (BPG). Bakoitza operazionalizatzen da eta bere pisua totalaren heren bat da.

  . Hezkuntzan egindako gastua kontuan hartzen da baina, era berean, osasun zerbitzuak, ikerketa eta garapen (I+G) alorretan egindako inbertsioak, ... BPG p/c eta dimentsio sozialen (osasuna, hezkuntza) arteko korrelazioa garaia da.

Giza garapenari dagozkion berezko gaitasunak ondorengoak dira:

- Bizitza luze eta osasuntsua izan;
- Ezagupenak izan; eta
- Beharrezkoak diren ondasun eta zerbitzuak jasotzea bizi-maila duina izateko.

**Giza gapenaren indizea (GGI):**

Giza Garapenaren Indizeak (GGI) giza ahalmenak neurtzea bilatuko du.

- Hiru osagai izango ditu:

  1. Bizi-itxaropen Indizea
  2. Hezkuntza Indizea
  3. BPG Indizea

GGI= 1/3 Bizi-itxaropen Ind. + 1/3 Hezkuntza Ind. + 1/3 BPG Ind.




GGIren arabera sailkatuko dira herrialdeak:

- Giza Garapen oso garaia (GGI ≥ 0,80)
- Giza Garapen garaia (0,70 < GGI < 0,80)
- Giza Garapen ertaina (0,55 < GGI ≤ 0,70)
- Giza Garapen baxua (GGI ≤ 0,55)

Alde:

- Garapen kontzeptu berria gauzatuko du.
- Dimentsio sozialak barneratuko ditu, eta ez soilik ekonomikoak.
- Adierazle ekonomikoekin alderatuta interpretazio interesgarrietarako aukera zabaltzen du.

Aurka:

- Pertsonengan eragin zuzena duten garapenaren dimentsio garrantzitsuak ez ditu aintzat hartzen (ingurumena, genero berdintasuna, askatasun maila, etab.).
- Ez du errenta banaketa kontutan hartzen.
- Dimentsioen ponderazio konbinaketa subjektiboa da.

* BPG p/c eta dimentsio sozialen (osasuna, hezkuntza) arteko korrelazioa garaia da.

Giza garapenaren beste indize batzuk:

- GIZA GARAPENAREN INDIZEA (GGI)

*Índice de Desarrollo Humano (IDH)*

- Disparekotasunaren arabera doitutako GGI

*IDH ajustado por la Desigualdad*

- Genero Garapen Indizea

*Índice de Desarrollo de Género*

- Genero Disparekotasun Indizea

*Índice de Desigualdad de Género*

- Dimentsio anitzeko Txirotasun Indizea

*Índice de Pobreza Multidimensional*

**d) Garapen iraunkorra:**

“egungo belaunaldiaren beharrizanak asebetetzen dituen garapena da, etorkizuneko belaunaldiek beren beharrizanak asebetetzeko ahalmena arriskuan jarri barik”.

Baina GI-ren ikuspunturik interesgarriena eta berarizkoena honako hau da:

• Iraunkortasunaren ikuspegiak oinarri fisikoa (ingurumena) duenean gidari.

Hortaz, neurketarako oinarri fisikoko iraunkortasun adierazleak dira egokienak, besteak beste:

• Aztarna ekologikoa

- Metabolismo sozialeko adierazleak

Iraunkortasuna da → garapenaren ikuspegi integrala (ekonomia, gizartea eta ingurumena).

**Aztarna ekologikoa:**

Aztarna Ekologiko kontzeptua barneratu sortutako ingurumen eragin negatiboen adierazle gisa: *“Biologikoki produktiboa den lur (edo itsaso) azalera beharrezkoa giza populazio jakina denbora mugagabez material eta teknologiamaila jakinarekin mantentzeko”*

. 1990 ham.-an asmatu (Wackernagel eta Rees, 1996).

. Oihartzun handia eta tresna esanguratsua.

. Global Footprint Network da gaur egun adierazle honen sostengua (www.footprintnetwork.org)

. Alor ezberdinetako aztarna erabiltzen da: gizabanako, hiri, herrialde, enpresa, etab.

Kalkulua:

1.- AE zein Bioahalmena kalkulatzeko 6 eremu mota kontutan hartu:

Laborantza-lurrak, larreak, baso-lurrak, itsasoko ekoizpen-eremua, eraikinak eta azpiegiturak dituzten lurrak, eta berotegi-efektuko gas-isurketak xurgatzeko beharrezkoak diren lurrak (karbono-aztarna).

2.- AE-ren osagai bakoitza: EF = (P / YN) x YF x EQF

non EF, aztarna ekologikoa den; P, naturatik ateratako produktuaren edo isuritako hondakinen zenbatekoa; YN, herrialdearen batez besteko produktibitatea P-rako; YF, produktibitate-faktorea (aztergai dugun eremu motarena); eta EQF baliokidetasunfaktorea (aztergai dugun eremu motarena).

Eta herrialde bateko Bioahalmena: BC = A x YF x EQF non BC, bioahalmena den; eta A eremu mota jakin baten azalera erabilgarria den.

3.- Eremu mota bakoitzari lotutako AE-en batuketa:

EF = EFLaborantza + EFLarreak + EFBasoak + EFItsasoa + EFAzpiegiturak + EFKarbonoa.




**Gizarte metabolismoa:**

**GIZARTE METABOLISMOAri lotutako ADIERAZLEAK**

**Taula. Profil metabolikoak gizarte eredu ezberdinetan**

| Adierazlea | Unitatea | Gizarte ehiztari-biltzailea | Nekazal gizartea | Gizarte industriala |
|---|---|---|---|---|
| Energia totalaren erabilera p/c | GJ/bizt./urte | 10-20 | 40-70 | 150-400 |
| Materialen erabilera p/c | Tn/bizt./urte | 0,5-1 | 3-6 | 15-25 |
| Populazio dentsitatea | Bizt./km² | 0,015-0,0115 | < 40 | < 400 |
| Nekazal populazioa | % | - | > 80 | < 10 |
| Energia totalaren erabilera azalera unitateko | GJ/ha/urte | < 0,01 | < 30 | < 600 |
| Materialen erabilera azalera unitateko | Tn/ha/urte | < 0,001 | < 2 | < 50 |
| Biomasa (energia erabileraren %) | % | > 99 | > 95 | 10-30 |

turria: Carpintero eta Riechmann (2013:52), Haberl *et al.*-en (2011) oinarrituta.

**Taula. Munduko eta herrialde multzoen PROFIL METABOLIKOAK (2000 urtea)**

| Adierazlea | Unitatea | Mundua | Industrializatuak | Garapenean |
|---|---|---|---|---|
| ***Testuinguru sozioekonomikoa*** | | | | |
| Herrialde kopurua | | 175 | 49 | 126 |
| BPG p/c | $/bizt. | 6.665 | 18.829 | 3.124 |
| Populazio dentsitatea | Bizt./km² | 45 | 24 | 60 |
| ***Profil metabolikoa*** | | | | |
| Nekazal populazioa | % | 42 | 8 | 52 |
| Biomasa partaidetza EBKan | % | 36 | 21 | 55 |
| Energia erabilera p/c (EBK/bizt.) | GJ/bizt/urte | 102 | 253 | 59 |
| Materialen erabilera p/c (MBK/bizt.) | Tn/bizt/urte | 10 | 19 | 7 |
| ***Beste parametro soziometabolikoak*** | | | | |
| Zemento kontsumoa p/c | Kg/bizt./urte | 266 | 421 | 221 |
| Burdin kontsumoa p/c | Kg/bizt./urte | 137 | 396 | 62 |
| Abere-elikadura kontsumoa p/c | GJ/bizt./urte | 0,70 | 1,29 | 0,53 |
| Elektrizitate kontsumoa p/c | GJ/bizt./urte | 9 | 29 | 3 |
| ***Lurraldearen gaineko presio metabolikoak*** | | | | |
| Energia erabilera azalera unitateko (EBK/azalera) | GJ/ha/urte | 46 | 62 | 35 |
| Material erabilera azalera unitateko (MBK/azalera) | Tn/ha/urte | 4,4 | 4,6 | 4,3 |

“Gizarteek beren “metabolismoaren” arabera lehengaiak “irentsiko” dituzte, “metabolizatuak” izango dira ondasun eta zerbitzuak produzitzeko, eta azkenik hondakinak “iraitziko” dituzte kutsadura eta material baztertu eran.

Metabolismo sozialari lotutako adierazleak Ekonomia Ekologikoaren esparruari egokitzen zaizkio.
Bai materiarekin zein energiarekin zerikusia duten adierazle ugari daude, baina bakarrik horietariko batzuen berri emango dugu

Gaur egungo gizarteak askoz ere energia gehiago erabiltzen da; indizeak ez du esaten nola sortzen den energia hori edo zertarako erabiltzen den.

---

**1.4. Irakasgaiaren ikuspegi orokorra.**

Orain arte jorratutakoaren arabera irakasgaiaren ikuspegi orokorra zein den azaltzea komeni da, 3 oinarriren arabera:

1. Munduko Ekonomia Politikoa:
   (i) Kapitalismoa, jarduera ekonomikoa eta botere-harremanak antolatzeko modu propioa;
   (ii) Metaketa-erregimen konkretuak;
   (iii) Aktore, elkartruke modu eta nazio-ekonomien kanpo-txertaketaren arteko dinamika artikulatu;
   (iv) Munduko ekonomiaren etapak metaketa-erregimenaren ezaugarri eta artikulazioen menpe daude.

2. Garapen/azpigarapenaren inguruko ikuspegia:
   Produktu historikoa eta botere harremanen menpe, ez soilik faktore ekonomikoek baldintzatuta.

3. Ekonomia Ekologikoa:
   Giza sistema ekonomikoa biosferaren azpisistema da, eta horien arteko harremanak elkar menpekoak dira.

# 2.GAIA: Munduko sistema ekonomikoaren bilakaera eta eraketa

**2.1. Sarrera. Bilakaera orokorra.**

Ikuspegi historikoa

➔ Kapitalismo industriala ezarri zenetik (1820 inguru), hazkunde ekonomikoa (ΔBPG) aurreko garai historikoetan baino askozaz handiagoa izan da.

Errenta per capitaren (BPG / biztanle) hazkundea are handiagoa izan da.

Hazkunde horrek bizkortze eta geldialdi garaiak dauzka ◊ kapitalismo industrialaren barnean, 5 hazkunde garai ezberdindu ohi dira:

1) 1820-1870: Iraultza industrialaren ezarpena.
2) 1870-1913: inperialismo garaia ("ordenu liberala").
3) 1919-1939: gerra arteko garaiak (edo: 1914-1945).
4) 1945-1973: gerra osteko hedaldia ("kapitalismoaren urrezko garaia").
5) 1973-gaur egun: globalizazioa ("ordenu neoliberala").

Bilakaera orokorra

**Crecimiento del PIB y del PIB por habitante del mundo, 1000-1998**
(tasas de crecimiento anual promedio compuesto)

| | 1000-1500 | 1500-1820 | 1820-70 | 1870-1913 | 1913-50 | 1950-73 | 1973-98 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| PIB | 0,15 | 0,32 | 0,93 | 2,11 | 1,85 | 4,91 | 3,01 |
| Población | 0,10 | 0,27 | 0,40 | 0,80 | 0,93 | 1,92 | 1,66 |
| PIB / hab. | 0,05 | 0,05 | 0,53 | 1,30 | 0,91 | 2,93 | 1,33 |

Iturria: Angus Maddison, *La economía mundial: una perspectiva milenaria*. OCDE y Mundi-Prensa, Madrid 2002.

➔ Kapitalismo industriala ezarri zenetik (1820 inguru) sortutako errenta disparekotasun handiz banatu da, Ipar ekonomikoan kontzentratuz egungo globalizazio garaia arte, zeinetan Asiak (Japonia izan ezik) tokia errekuperatu duen.




Kokatzen gaitu herrialde lerroan jarraitu duten bilakaera ekonomikoan. Gerra osteko kokapena eta globalizarioaren garaiko portaerak nola aldatu diren. Petroliaren oinarri energetikoa aipatzen da ere, oraindik jarraitzen dugu krisi horren ondoriozko portaerak eta aldaketak petrolioa merkearen garaian mantentzen garela.

- Estanflazio terminoa: Inflazioa ematen da, azkenengo biak emanda prezioen igoera eman zen
  . Estankamendua: Langabezi-tasa igo.
  . Atzeraldia sortzen da.

Hegoaren kasuan: Txinaren gorakada, zein Asiako dragoien (Singapur, Hego Korea eta Taiwan). Zorpretzea emango da hegoaldeko herrialdeetan kanpo zorrei ezinez aurre egin. Gaur egun, batzuk ere mantentzen dira zorpretze horretan hala nola Afrikako herrialde batzuk.

Munduko ekonomia "urrezko garaia"

- "Urrezko aroaren" erregimena: 1945-1970.
  Hazkunde ekonomiko azkarra, luzea eta egonkorra, bi hamarkadatan

- Metatze-erregimenaren **oinarriak:**

  **.** Lanaren produktibitatearen hazkunde handia.
  **.** Errenta banaketaren baldintzak aldatu ziren.
  . Gizartearen ongizatea eta enpresen metaketa ahalmena handitu ziren.

- Prozesu ekonomikoaren erreprodukzioa eta metaketa bermatu zuten itunak:

  . Itun soziala: jabeen eta langileen artean. Banaketa gatazka kudeatzeko.
  . Itun politikoa: alderdi sozialdemokraten eta kontserbadoreen artean. Estatuaren politika ekonomikoak metaketa dinamika bermatzeko.
  . Bretton Woods-eko ituna: nazio-esparruan nagusitasuna bermatzeko. Ekonomia nazionalak atxikitu ziren horretara, gambio tasak finkoak ziren garai horretan ziurtasunagatik.

<u>Munduko ekonomiaren osagaiak eta giltzadurak</u>

- Eragileak:

a) Eragileak:
   - Estatu-potentziak.
   - Enpresa transnazionalak (ETN).
   - Aldeanitzeko erakundeak (NDF eta MB) eta negoziazio foro bat (GATT).
   - AEBko estatu-erakundeen eta bertako transnazionalen arteko lotura nabarmentzen da.

b) Elkartruke moduak:
   - Nazioarteko merkataritza: industri-ondasunak (manufakturak nagusitasuna zeukaten momentu hartan).
   - Kanpoko inbertsio zuzenak nabarmentzen hasi (ETNak): Empresa bateko beste herrialde bateko enpresa batek sortzean eta filialetan atzerriko inbertsio.
   - zuzenak sortzne ari dira.
   - Bretton Woods (1944): egonkortasuna nazioarteko moneta- sisteman

c) Ekonomia nazionalen kanpo-txertatzea:
   - Herrialde garatuak/Herrialde ez-garatuak.
   - Integrazio ekonomiko erregionala.
   - AEBen nagusitasuna apalduz joan zen (hegemonikoa).

<u>Metaketa erregimenaren krisia: haustura garaia</u>

➔ Metaketa erregimenaren gainbehera:

- 1970eko urteetan: hazkundea eta politika erregulatzaileen eraginkortasuna bermatzeko zailtasuna.
- Enpresa handien interesak indartu ziren: itun soziala eta itun politikoa apurtzea eskatu zuten.
- Finantza erakundeak eta finantza-jabe aberatsak ere gero eta nagusiago.
- Thatcher (1979) eta Reagan (1980): moneta politika murrizkorrak, liberalizatzaileak eta pribatizatzaileak.
- Bretton Woods-eko moneta sistemaren haustura.
- Nazioarteko kapital mugimenduak liberalizatu ziren.
- Nazioarteko erakundeen babesa.

➔ Aldaketak munduko ekonomian. Eragileak:

- Estatuak ez ziren gai euren politika ekonomikoen arrakasta ziurtatzeko.
- Enpresa transnazionalen botere hazkorra.
- NDF: ezin aurre egin moneta sistemaren arazoei.
- AEBko gobernuak Bretton Woods-eko ituna bertan behera utzi zuen 1971n.

- 1973an krisi politiko ekonomikoaren ondorioz LPEE (OPEP) erakundea munduko ekonomiaren eragile nagusi agertu zen.

➔ Aldaketak munduko ekonomian. Elkartruke moduak:
- Ekoizpenaren internazionalizazioa handituz doa, inbertsio zuzenen bidez.
- Europa eta Japoniako enpresen lehia hazkorra, AEBko esportazioen kaltetan.
- Herrialde ez-garatuetako enpresa batzuk ondasun metalurgiko eta mekanikoak ekoizten eta esportatzen hasi ziren.
- Bretton Woods-eko itunaren hausturak ganbio tasen ezegonkortasuna ekarri zuen.
- 60ko hamarkadako azken urteetan nazioarteko finantza tresna berriak sortzen hasi ziren.
- 70eko hamarkada bukaeran AEBk eta Erresuma Batuak kapital mugimenduak liberalizatu zituzten.

➔ Aldaketak munduko ekonomian. Ekonomia nazionalen kanpotxertatzea: Hierarkia aldaketa nabarmena.
- Hazkunde txikiagoak kanpoko erosketak murriztu zituen: esportatzeko ahalmena jaitsi zen.
- 1973an eta 1979an petrolioaren prezioen shock-ek herrialde garatu gehienen kontu korronteko balantza desorekatu zuten.
- AEBko ekonomiaren merkataritza egoera ahuldu zen Europako eta Japoniako lehiaren ondorioz.
- 1970ko urteetan Asiako Ekialdeko hainbat herrialde industrializatzen hasi ziren: Hego Korea, Singapur, Hong Kong, Taiwan.
- Petrolioaren prezioen igoerek herrialde esportatzaileen superabita ekarri zuten: “petrodolarren” birziklatzea.

➔ **Nazioarteko botere ekonomikoaren erdigunea:**

AEBren nagusitasunak aldaketa nabarmenak: bere Estatuaren indarra, bere ETN eta bere ekonomiaren kanpo-txertatzea:
- AEBko nazioarteko merkataritzaren nagusitasuna bukatu zen: merkataritza balantza negatiboa etengabe.
- Nazioarteko moneta eta finantza merkatuetan nagusitasuna indartu zen.
- ETNek inbertsio zuzenak handitu zituzten.
- ETNek eta talde finantzario handiek Estatuaren rola gutxietsi nahi zuten.

* Herrialde garatuen eta ez-garatuen arteko lotura hierarkikoa krisian sartu zen → Nazio Batuek zalantzatan jarri boterearen statu quo.

➔ Metaketa-erregimen berriaren baldintzak ezarri:

1. Garapen teknologiko sendoa:
   - Ondasun eta zerbitzu berri ugari.
   - Kostu baxuagoa, kalitate hobea eta ekoizpen arinagoa.
   - Ekoizpen prozesuen zatiketa teknikoa: bereizte geografikoa.
   - Ondasun eta zerbitzuen mugikortasun handiagoa nazioartean.
   - Komunikazio sistema berriak, datuak eta irudiak elkartrukatzeko.

2. Aldaketa instituzionalak:
   - Enpresa-jabeen posizioa indartu errenta-banaketaren lehian.
   - Gobernuen politika ekonomikoetan enpresa-interesak nagusi.
   - Finantza-kapitalak indartzen dira.
   - Hizkera berria: “errenten kontrola”, “erreforma estrukturalak”, “malgutasuna”, …

➔ Nazioarteko eszenatokia aldatu zuten 5 gertakari:

1. AEBren nazioarteko politika aldaketa Reaganen eskutik (1981) ; posizio gogortuak.
2. Kanpo zorraren krisiaren eztanda 1982an Latinoamerikan.
3. Sobietar Batasuneko eta Ekialdeko Europako erregimenen desagerpena. Krisi ekonomikoa eta nazioarteko posizioa galdu.

- Alemaniako batasuna; EBn pisua areagotu. Euroa bere onurarako diseinatu.
- Txinaren hazkunde ekonomiko azkarra. Mundu osoan eragina.

---

**2.2. Ekonomia kapitalista aurreratuak: gerra osteko hedaldia eta krisialdia.**

<u>Hedapen garaia (1945-1970):</u>

- Politika ekonomiko berria.
  . Liberalismoaren amaiera.
  Merkatuaren mugak agerian.
  Krisialdiak eta arautzearen beharra.

  . Keynesianismoaren gorakada.
  Merkatuaren hutsegiteak.
  Zikloaren aurkako politikak.
  Ongizate Estatua: legitimazioa.

- Produkzio oinarri berria:
  (i) Teknologia arloa,
  (ii) Energia-oinarria,´
  (iii) Lan-antolaketa berria,
  (iv) Beste aldaketa batzuk: eskaintza produktiboa, kontsumo-eredua, AIZ, etab.

***** Sartu daiteke:**
Produktibitatea: BPG/Enplegatutako orduak (bigarren taulan ikusten duzu). Ze harreman dago bi taulen artean? Lehenengoan langileak sektoreka bananduta eta haien eboluzioa. Datuak negatiboak izanda, kanporaketa egon dela adieraziko digu. Hazkundea badago, nahiz eta langile gutxi izan horrek ez dua ldatuko produktibitatearen hazkundea. Industriaren kasuan (bigarren taulan) erraz barneratu izan da historian zehar eta nahiz eta langile kopurua murriztu produktibitatea handitu egin du. Sektore industrialean errazago barneratzen dira berrikuntza teknologikoak eta ondorioz langileen produktibitatea altuagoa bilakatzen da.
Zerbitzuen kasuan industriarekin alderatuta zerbitzuak askoz trinkoagoak dira, langileak beharrezkoak dira eta industrian berriz ez. Hala nola, taberna batean beharrezkoak badira 3 pertsona beharko ditut 3 nahiz eta teknologia erabili.

CUADRO 5. **DISTRIBUCION DEL EMPLEO POR SECTORES. TASAS DE VARIACION. 1950-73**

| | agricultura | industria | servicios |
|---|---|---|---|
| EE. UU. | — 3,5 | 1,4 | 2,2 |
| FRANCIA | — 3,5 | 0,9 | 1,8 |
| GRAN BRETAÑA | — 2,0 | 0,0 | 1,0 |
| JAPON | — 3,8 | 3,9 | 4,1 |
| R.F. ALEMANA | — 3,7 | 1,4 | 2,3 |

Fuente: A. Maddison, ob. cit.

CUADRO 6. **CRECIMIENTO DEL P.N.B. POR PERSONA EMPLEADA: 1950-73 (tasas medias anuales)**

| | agricultura | industria | servicios |
|---|---|---|---|
| EE. UU. | 5,5 | 2,4 | 1,8 |
| FRANCIA | 5,6 | 5,2 | 3,0 |
| GRAN BRETAÑA | 4,7 | 2,9 | 1,6 |
| JAPON | 7,3 | 9,5 | 3,6 |
| R.F. ALEMANA | 6,3 | 5,6 | 3,0 |

Fuente: A. Maddison, ob. cit.

17

<u>70eko hamarkadako krisialdia:</u>

3 arrazoi nagusi:
Aldaketa teknologikoaren inguruan:
1.- Teknologiaren uhina agortu zen.
. Teknologien zabaltzea.
. I+G inbertsio txikiagoa.
. I+Gko gastu militar gehiegi.
. Beste faktore batzuk

2.- Energiaren krisia.
. Petrolio garestiaren epe laburreko eta ertaineko eraginak.
. Aldaketak energia-sektorean.

Aldaketa instituzionalen inguruan:
3.- Lan-antolaketaren haustura: fordismoaren mugak.

. Muga teknikoak: malgutasun txikia.
. Muga sozialak: soldata-produktibitateko erlazioaren haustura.
. Lanaren antolaketa era berriak.

** Esleipen-funtzioa: Merkatuak bere kabuz funtzioantzen badiogu hutsuneak izango ditu. Sektore publikoak merkatu horietan sartzen dira hala nola enpresa batzuei multak edo isunak jarriz. Ondasun publikoen kasua ere aipatzekoa da, hala nola farolen argia zeina ondasun publikoa enez kontsumo publikorako denez ezinezko dugu beste batek ez kontsumitzea. Sektore pribatuari ez zaio errentable hori egin eta ondorioz hori eskaini behar du errentagarri bezala eginez (zerbait kobratu).

Egonkortze funtzioa: Inflazio handia egotean bilatzen den funtzioa (makro-funtzioa). Bi aldagai nagusi ekonomian: Prezioa eta kantitatea.

Birbanaketa funtzioa:
- Diru-transferentziak: Laguntzak edota pentsioak (rgi), transferentzia horiek diruz egiten dira.
- Gauza/espezie trans: Hezkuntza publikoa edota osasun publikoa.

Erregulazio funtzioa: Jabego pribatua bermatzeko beharrezko den funtzioa, salerosketa kontratuak arautuz.

1980-90 hamarkadetako arazo ekonomiko nagusiak

• Europako Batasuna (EB zeuden herrialdek haien artean elkar aldaketak errazteko moneta sistema, hainbat dibisa izanik eta harremana gambio tasa zehatz bati kokatzen zaion eta horrela fluktuatu ahal zezaketen. Apurtu zen inflazio episoditetatik eta euroaren arkitektura aurrera eramaten da Markoaren egituraren bitartez):
  ◦ Politika deflazionistak eta langabezia 80-90ko urteetan.
  ◦ Europako moneta-sistemaren krisia.

• AEB (galdu zuen hegemonia eta beste aktoreen presentzia indartu, gehiago inbertitzen du eta gutxi exportatzen du. Kanpo defizita dauka, Txinarekin konparatuz):
  ◦ Merkataritza defizita: kapitalen sarrerei esker finantzatuta.
  ◦ Ziurgabetasuna: dolarraren ahulezia eta hipoteken porrota.

• Japonia:
  ◦ 90eko urteetako atzeraldia, gainditu barik 2000 urteetako erdi arte.

---

## 2.3. Ekonomia periferikoak: ezaugarriak, industrializazio ereduak eta kanpo zorraren krisialdia.

Azpigarapena:
- Ikuspegi teorikoak.
- Egiturazko ezaugarriak: kanpora begirako ekonomiak, hirugarren sektorearen hipertrofia (enplegatu gehiegi produktibitate maila baxuagatik), nekazaritza-kapitalismoa, desartikulazioa, menpekotasuna askotariko alorretan (merkataritza, kontsumo eredua, finantzak, teknologia), industrializazio berantiarra.

Ekonomia periferikoen tipologiak:
- Iraupeneko nekazal ekonomiak: nekazaritza helburu ez-kapitalistarekin (autokontsumorako): Saharapeko Afrika eta GAH. Ekonomia itxiak, eta esportatu produktu oso gutxi. AIZk kanpo interesen mesedetara.

- Ekonomia lehengai-esportatzaileak: espezializatu nekazal produktuen esportazioan: primario-esportadoras. Zenbait herrialde horren ezaugarriak dituzte oraindik.

- Industrializazio prozesuak:
  . Inportazioak Ordezkatzeko Industrializazio (IOI) eredua: Latinoamerikan.
  . Esportazioak Ordezkatzeko Industrializazio (EOI) eredua: Asiako hego-ekialdean.

Kanpo-zorraren krisia

1. AZPIGARAPENARI BURUZKO IKUSPEGIAK

**Azpigarapenari buruzko ikuspegiak**




2. AZPIEGITURAREN EGITURAZKO EZAUGARRIAK

   1. Kanpora begirako ekonomiak
   2. Hirugarren sektorearen hipertrofia
   3. Nekazaritza-kapitalismoa
   4. Kontzentrazioa eta bazterketa
   5. Desartikulazioa
   6. Menpekotasuna askotariko alorretan: Merkataritza, kontsumo eredua, finantzak, teknologia
   7. Industrializazio berantiarra

3. 1930-50EKO HAMARKADA ARTEKO TIPOLOGIA
   a) Iraupeneko nekazal ekonomiak:
      - Nekazaritza helburu ez-kapitalistarekin: produkzio gehiena autokontsumorako.
        Gaur egungo herrialdeak: Saharapeko Afrika eta Gutxien Aurreratutako Herrialdeak (GAH).
      - Zenbait ezaugarri:
        • Erabilitako teknologia oso antzinakoa.
        • Produkzioa: ez da merkatura zuzentzen.
        • Ekonomia itxiak dira.
        • Esportatzea lortzen duten ekonomiak Iparrarekiko menpekotasuna dute.
        • 'Pobreziaren aterabide gabeko zuloa':




   b) Ekonomia lehengai-esportatzaileak:

1 Kokaleku-ekonomiak
   Produktuaren araberakoak:
   (i) mineralak (kobrea, estainua, etab.);
   (ii) Produktu tropikalen landaketak (kakao, bananak, kafea, etab.)

2 Ekonomia integratuak (edo klima epeleko nekazal ekonomiak)
2.3 Elikagaiak, batez ere okela eta zerealak.
2.4 Latinoamerikan: Argentina, Uruguay, Brasilgo Hegoaldea.

Ezaugarriak:
- Lehen sektorean oinarritutako produkzioa (elikagaiak eta lehengaiak).
- Nazioarteko merkataritza eskema klasikoari erantzuten dio.
- Iparraldearekiko merkatal menpekotasuna:

<u>2.4.1</u> Esportazioak: produktuak saltzeko merkatua → dibisak lortzeko.
<u>2.4.2</u> Inportazioak: produktu industrialak eta zerbitzuak erosteko.
- Hegoaldeko herrialde gehienak lehen-esportatzaileak izan dira tradizionalki. Gaur egun herrialde askotxok jarraitzen dute eredu hau.

- Elkartruke Erlazio Errealaren (EEE) etengabeko narriadura pairatu dute:

2.4.3 Esportatutako produktuen prezioak gero eta baxuagoak (lehengaiak eta elikagaiak).

2.4.4 Inportatutako produktuen prezioak gero eta altuagoak (manufakturak).

**Esportazioen dibertsifikazioa eskualdeka, 1980, 1990 eta 2004**




ONU: *World Economic and Social Survey 2006*

➔ Hegoaldeko ekonomia gehienak beren esportazioak oso produktu gutxitan kontzentratzen jarraitzen dute: lehengaiak edo lanean trinkoak diren manufakturak
➔ Ekialdekoetan kontzentrazioa geroz eta gehiago hazten da
➔ Soilik Asia Hegoekialdeko ekonomia jakinek dibertsifikatu dituzte (*dragoiek*, Txina…), teknologia maila eta balio erantsi handiagoko produktuak esportatuz.

4. 1950-60KO HAMARKADA GEROZTIKO INDRUSTRIALIZAZIO PROZESUAK

a) Inportazioak Ordezkatzeko Industrializazioa (IOI): Latinoamerikan: Argentina, Brasil, Mexiko. Jatorria: ekonomia lehengai-esportatzaileak. 40ko/50eko ham. hasiko da nonbait industrializazioa.

Estrategia: lehenagotik inportatzen zituzten manufakturak bertan produzitzea. Inportazioak zaildu mugak ezarriz; sektore publikoaren bitartez. Industrializazioa ez zuen behar beste bultzatu Estatuak.
• Aldi berean inportazioak zaildu mugak ezarriz: barne merkatuaren babes selektiboa (mugasariak ondasun ezberdinei selektiboki ezarri) → industria jaioberrien argumentua.
Helburuak: Industrializazioa/ekonomia ezberdindu. Kanpo menpekotasuna gutxitu. Merkatal saldoa hobetu.

Zer da bilatzen dena? Gorantzako joera fase ezberdinetatik pasatuz; baina praktikan ez zen lortu:

1. fasea: Kontsumorako produktu ez-iraunkorrak (jostailuak, oihalgintza, zapatak, etb.)
2. fasea: Kontsumo ondasun iraunkorrak (kotxeak, etxetresna elektrikoak, etb.)
3. fasea: Ekipo-ondasunak produzitu aipatutako sektoreak hornitzeko (makineria, kimika, etb.)

b) Esportazioak Ordezkatzeko Industrializazioa (EIO): Lehenengo fase batean Hego Korea, Taiwan, Hong Kong eta Singapur (Dragoiak). Aurrerago Malasia, Tailandia eta Indonesia (Tigreak) batuko zaizkie, baina kasu honetan Atzerriko Inbertsio Zuzenak (AIZ) garrantzi handiagoa.

Manufakturen esportazioetan datzan eredua:
Hasieran teknologia maila apaleko sektoreak: zapatak, jostailuak, eta abar.
Gaur egun teknologia maila handiko produktuak: ordenagailuak, tresna elektronikoak, itsasontziak eta abar.

Hasieran (1960ko ham.) IOI eredua jarraitu zuten, baina era osatuagoan: hazkunde ekonomikoa gehi garapen soziala.
Estatuak paper garrantzitsua jokatu: barne merkatua babestu ez ezik, beste politika batzuk jarraitu zituen.

Laster estrategiaz aldatu: kanpo-merkatua helburu (EOI)
- Hasieran kanpo faktoreak oso garrantzitsuak: Japoniaren eragina: ETNen inbertsioa; Estatu Batuetako laguntza Gerra Hotzaren testuinguruan.
- Barne faktoreak: industrializazioa bultzatzeko garrantzitsuak.
  *Abantaila konparatiboak: eskulan ugaria, merkea, diziplinatua. Soldata erlatiboki baxuak.
  *Estatuaren papera: sektore-politikak, babesgintza, planifikazio estrategikoa, etab.

c) "Kanpo-zorraren krisia" eta Egiturazko Doikuntza Egitarauak (EDE)

80ko ham.: interes tasa errealen hazkundea eta dolarraren balioaren hazkundea (moneta politika AEBn; dolarraren balio areagotu eta beraz nire dibisaren moneta gehiago behar ditut) → zor zamaren hazkundea.

. 80ko ham hasieran bigarren maileguen epea amaitzen da eta zenbait herrialdek ezinezkoa ikusten dute horiek ordaintzea.

. 1982: Mexikok maileguei ezin aurre egin (ordainketa-etendura) → ikara-finantziarioa

Hegoaldeko arazoa Iparraldearen arazo bilakatzen da.

NMFaren papera:

. Zordun eta hartzekodunen arteko bitartekari.

. Mailegu emaile eta herrialde zordunentzat lehen baliabide iturri bilakatzen da. Baina baldintzak ezarrita: Egiturazko Doikuntza Egitarauak (EDE)

Egiturazko Doikuntza Egitarauak (EDE):

- Politika ekonomikoko neurri multzoa herstura eta liberalizazio ekonomikoan oinarrituta finantza-saneamendua eta hazkunde ekonomikoko etorkizuna ahalbidetzeko.
- EDEa NMF eta/edo MBak ezarritako baldintza dugu herrialde jakinak finantziazioa lortzeko eta nazioarteko ordainketa arazo larriari aurre egin diezaion.
- Errezeta bakarra eta ustez unibertsalki balio duena → herrialde bakoitzaren egoera partikularra aintzat hartu gabe aplikatu egiten da.
- Azken 35 urteetan Hegoaldeko eta Ekialdeko 90 herrialde baino gehiagotan aplikatu dira.
- Jatorriz, Kanpo Zorraren krisiari (80ko ham.) irtenbidea emateko sortuak, nahiz eta ostean baita Ekialdeko herrialdeetan ere aplikatu ziren.

EDEak eta Washington-eko Adostasuna

- Washington-eko Adostasuna (90eko ham.):
. EDEn justifikazioa, garapenerako politika hoberena dela argudiatuz. Benetako helburua kanpo zorraren ordainketa da, eta batik bat, politika neoliberalen hedapena Hegoan eta Ekialdean.

- Ikuspegi honekin, EDEak 2 eratako neurriak:
. <u>Izaera murriztaileko neurri egonkortzaileak</u>: aurrekontu publiko defizita eta Pagamendu Balantzaren (Merkatal-balantza) defizita zuzentzeko. Horretarako, moneta-politika eta politika fiskal murriztailea.
. <u>Egiturazko neurriak: epe</u> luzeko hazkunde ekonomikoa ahalbidetzeko. Liberalizazio ekonomikoa (merkatal- eta kapital-mugimenduena), monetaren debaluazioa, pribatizazioak eta lan-merkatuaren malgutzea.

- Kritika gogorrak eremu akademiko eta Nazio Batuen agentzien aldetik (UNCTAD, CEPAL, PNUD, UNICEF, ...)
. UNICEF (1987): “Ajuste con rostro humano”. EDEi kritikak biltzen zituen lehen txosten esanguratsua.

**Ondorioak:**

<u>HPOZ (Herrialde Pobre Oso Zorpetuak - Heavily Indebted Poor Countries) ekimena:</u>

Ezaugarriak:

- Herrialde txiroenen kanpo-zorrari aurre egiteko 1996an sortua; G-7, MB eta NMFk bultzatuta.
- Kanpo zorraren zati handi bat barkatu eta birprogramatu.
- Baldintza oso zorrotzak hautatua izateko.
- 1999an baldintzak zerbait bigundu egin ziren.
- Txirotasunaren Aurkako Dokumentu Estrategikoak (TADE/PRSP/DELP) sortu eta indarrean jarri.

Mugak:

- Baldintzapekotasuna mantentzen da: askotan pobreziaren aurkako politikekin kontrajarriak.

- Nahiz eta PRSPak gobernu bakoitzak sortu, MB eta NMFren onespena jaso behar dute.
- Ekimenaren helburu nagusia ez da txirotasunaren aurka egitea, baizik eta zorraren sostengarritasuna (hazkunde eta esportazioen gaineko aurreikuspenen arabera).
- Ez ditu kontuan hartzen egiturazko eragileak (zorraren arrazoiak, egitura produktiboaren diferentziak, nazioarteko merkataritza, menpekotasun ekonomikoa, etab.)

<u>EDEren ondorioak:</u>

- Hegoaldeko herrialdeak kapital esportatzaile garbiak izatera pasatu: kreditu berrien eta zorraren zerbitzuaren (printzipala + interesak) arteko diferentzia negatiboa urte askoan zehar.
    - Kasu paradigmatikoa: Latinoamerika.
- Kanpo-zorrak zama handia izaten jarraitzen du Hegoaldeko herrialde askoren garapen ekonomikorako.




## 2.4. Txinaren gorabidea: apurkako trantsizioa, industrializazioa eta arrakasta esportatzailea.

- Erreforma hasi zenetik 70eko hamarkadan bukaeran Txinak lortutako emaitza ekonomikoak bereziki onak.
- Txinaren agerraldia eta suspertzearen ezaugarriak: Apurkako trantsizioa; industrializazioa; eta arrakasta esportatzailea.

. <u>Kostaldeko eskualdetan garapen ekonomikoaren kontzentrazioa:</u>

- Gune Ekonomiko Bereziak • Gaur egungo Txinaren garapen ardatzak:

    Hegoaldean: Hong Kong-en ondoko eskualdea (Gran Delta del Río de las Perlas): BPGren %20a eta populazioaren 4%a. Finantza (Hong Kong) + Industria (konsumo ondasunak) + Turismoa (Macao).

    Shangai: BPGren %16a, populazioaren %6a. Eraikuntza, elektronika, industria astuna.

    Pekin: BPGren %14a, populazioaren %9a. Petroleoa-altzairua + teknologia garaiko industria.




*Esportazioen egitura aldatu du; lehengai eta nekazal-produktuetatik, kapital eta teknologian trinkoak diren produktuetara.

Egiturazko ahuleziak:

- Ingurumen-arazo gero eta larriagoak:

    Kutsadura maila larriak bai natura-baliabideetan bai hirietan.

    Negutegi efektuko gasen lehen igorlea mundu mailan (termino absolututan).

- Disparekotasunaren hazkundea:

    Errentaren banaketan.

    Lurralde ikuspegitik, hiri eta landa guneen artean.

- Populazioaren zaharkitzea eta emakumezkoen eskasia.

*Gas efektu gehien irabazten duen herrialdea, baina beste irakurketa: Igortzen dena aldaketa klimatikoari begira eragin berdina dauka (termino absolutuetan eta modu negatibo batean). Errenta banaketa eman da, dispareak dira eta desorekak eman dira nahiz eta errenta altuak izan.

Lerro beltzak urte orretan hazkunde (BNG) zehaztuko digu. Bestetik Gini indizean zenbat eta 0tik hurbilago egon errenta banaketa parekoa izango da eta zenbat eta 1tik egon errenta banaketa disparekoagoa izango da.

Kasu hoentan agarapen ekonomikoaren hazkundea zehazten dgu eta Giniren kasuan hazkundea eman dela ere zehaztuko digu tauka honek, bngren hazkundea errenta banaketa askoz disparekoagoa izango dela. Txinak lortu duen errenta banaketa izan da, disparekoa, gero eta hazkundea eman nahiz eta errentak disparekoak izan.

**Txinako hazkunde ekonomikoa eta disparekotasuna**

Gráfica 1: Crecimiento económico y Desigualdad en China




Fuente: National Bureau of Statistics of China (NBSCh) y Ravallion y Chen (2007).

Iturria: Molero (2013)

---

**2.5. Egungo egoera: metaketa-erregimen berria.**

. Metaketa erregimen berria:

- Transnazionala: Jarduera ekonomikoak eremu nazionalen gainetik.
- Finantziarizatua: Finantza-kapitalak baldintzatua.

. Ekoizpenaren banaketa geografikoa: ETNen papera.
. Eremu nazionalaren nagusitasun historikoa, metaketa dinamikaren funtsezko esparru bezala, desagertzen da.
. Metaketa dinamika ziklo finantzarioaren menpe.
. Botere harremanen aldaketa honako hauen alde: ondare finantzarioaren jabe handiak eta enpresa ez-finantzario transnazionalak.

* Laburbilduz, ezaugarri nagusiak:

. Eragileak:
- ETN handiak.
- Munduan eragiten duten estatu-potentziak.
- Zenbait nazioarteko erakunde (NMF, MB, …).

. Elkartruke moduak:
- Nazioarteko produkzioa, geografikoki eta kuantitatiboki hedatuta.
- Produkzioari lotutako nazioarteko merkataritza.
- Moneta-merkatuek eragina gainontzeko merkatuetan.
- Finantza-aktiboen eta instrumentuen salerosketak.
- Beste fluxurik (eskulan migratzaileak, delitu-jarduerak).

. Ekonomia nazionalen kanpo-txertatzea:
- Ek. garatu/ek. ez-garatu hierarkiak aldaketak jasan ditu.
- Integrazio ekonomikorako erregio-eremuak.

# 3.GAIA: Nazioarteko erakunde ekonomikoak

## 3.1. Bretton Woods-eko nazioarteko ordena ekonomikoa

Bretton Woodseko Akordioek (1944) IIMGaren osteko ordena ekonomiko berriaren eraikuntza dakarte, ondoko erakunde hauen sorreraren bitartez:

I. Nazioarteko Moneta Funtsa (NMF), sistema ekonomikoa arautu eta egonkortasuna ziurtatuz, merkataritza eta hazkundea ekonomikoa sustatuz.
II. Munduko Bankua (MB), gerra osteko berreraikuntza finantzatuz eta 1948tik aurrera, garapen bideko herrialdeak.

Sistema ekonomikoa arautu egonkortasuna ziurtatuz, merkataritza eta hazkunde ekonomikoa sustatuz

1)**Nazioarteko Moneta-sistema:**
-Ganbio-tasa sistemari egiten dio erreferentzia (dibisen merkatua eta ganbio-tasak ezartzeko araudia). Ganbio-tasa (dibisa baten prezio beste moneta batekiko) finkoa (dibisa baten balio beste dibisekiko balio konstantea du: arrisku kanbiarioa murriztu, quita incertidumbre, baina inflazioa badago hautsi egiten da ganbio-tasa). Dolar pila bat sistema zirkulazioan baina ez zuen dolar erreserba nahikorik diru horri balioa emateko. Urrea kopurua=Dolar kopurua AEB. Munduan zehar dolarrekiko.
-Funtzioa: dibisen balioaren gaineko akordioak, beharrezkoa merkatal- eta finantza-harremanetarako.
-Malgua (segun eskaintza-eskaria zein den haien prezioak aldatzen dira).

2)**Nazioarteko finantza-sistema:**
-Nazioarteko finantza-harremanen sarea (baita dibisen elkartrukea), besteak beste, moneta elkartrukea, AIZ, akzioak, epe laburreko zein luzeko maileguak, etb.
-Funtzioa: Finantza-baliabideak bideratu aurrezkitik inbertsiora.

• **Egonkortasun-eza eta ziurgabetasuna** areagotu dira moneta-sisteman zein finantzaeremuan, oro har, azken hamarkadetan.
Arrazoiak:

- Bertan emandako berrikuntzak.
- Hegoaldeko Zorraren arazoaren irtenbide eza.
- Finantza-merkatuen globalizazioa.

- II MG ostean beharrezkoa zen **"munduko ordenu berria"** eraikitzea → EGONKORTASUNA behar zen sistema kapitalistaren garapena bermatzeko, eta baita merkatal- zein finantza-elkarraldaketak berregiteko.
  - 1944: batzarra Bretton Woods-en. Emaitza:
    . Sistema berri hori erregulatuko zuten erakundeak (NMF eta MB) eta ganbio-tasa finkoko sistema.
    . Nazioarteko moneta-sistema erregulatzeko: **urre-dolar patroia**.
    Dolarrak urrearekiko ganbio-tasa finkoa eta bien arteko trukagarritasun osoa. Gainontzeko moneta guztiek dolarrarekiko ganbio-tasa finkoa ezarri zuten. Herrialdeak baliokidetasuna mantentzera (dolarrarekiko ganbio-tasa finkoa) eta NMFari ekarpenak egitera konprometitu. Helburua: Nazioarteko moneta- eta finantza-sistemaren egonkortasuna (dolarra parekotasun-sistemaren oinarria).

## 3.2. NMFaren zereginak.

. NMFak Nazioarteko Moneta Sisteman ezarritako arauak betetzea ziurtatzeaz arduratu. Hasera baten **2 funtzio nagusi** zituen:

1 Funtzio erregulatzailea: Nazioarteko Moneta Sistemaren egonkortasuna bermatzea (parekotasun finkoen sistemaren bermea), printzipioz nazioarteko merkataritza sustatzeko onuragarria dena.

2 Kreditu-funtzioa: beren Merkatal Balantzan BEHIN-BEHINEKO arazoak zituzten herrialdeei epe laburreko kredituak eman (horrela, dibisaren debaluazioa ekiditzeko).

-Sistema hau 1971 urte arte mantentzen da (dolarra dibisa sendoa den heinean eta EEBBek beren Merkatal Balantzan superabita duten heinean):
- G/t finko sistema deuseztatu →g/t malgu sistemara pasatu
- NMFaren funtzio nagusiak bertan behera geratu

• 1980ko ham.n NMFak (eta MBak) bere protagonismoa berreskuratuko du garapenaren alorrean aktiboki parte hartzen duenean eta Kanpo Zorraren arazoak (egiturazko arazoa) Hegoaldeko herrialdeak jotzen dituenean.

• NMFak baldintzapeko maileguak ematen ditu:
- Maileguak baldintzatuta ematen ditu etorkizunean desorekak ekiditzeko jarraitu beharreko Egitarauei (Egiturazko Doikuntza Egitarauak – EDE).

• Kreditu-funtzioa jarduerarik garrantzitsuenean bilakatuko da:
- 1982tik aurrera: Kanpo Zorraren arazoa.
- 1990eko ham.: Ekialdeko herrialdeetan eraldaketak (merkatu ekonomietarako trantsizioa).
- 2008tik aurrera: krisiaren ondorioz, erreskate planak Europako herrialdeei.

**“Kanpo-zorraren krisia” eta Egiturazko Doikuntza Egitarauak (EDE)**

• 80ko ham.: i/t errealen hazkundea eta dolarraren balioaren hazkundea → zor zamaren hazkundea.
. 80ko ham hasieran bigarren maileguen epea amaitzen da eta zenbait herrialdek ezinezkoa ikusten dute horiek ordaintzea.
. 1982: Mexikok maileguei ezin aurre egin (ordainketa-etendura) → ikara-finantziarioa.
• Hegoaldeko arazoa Iparraldearen arazo bilakatzen da.
• NMFaren papera:
. Zordun eta hartzekodunen arteko bitartekari.
. Mailegu emaile eta herrialde zordunentzat lehen baliabide iturri bilakatzen da. Baina baldintzak ezarrita: Egiturazko Doikuntza Egitarauak (EDE).
• Washington-eko Adostasuna (80-90eko ham.):
. EDEn justifikazioa, garapenerako politika hoberena dela argudiatuz. Benetako helburua kanpo zorraren ordainketa da, eta batik bat, *politika neoliberalen hedapena* Hegoan eta Ekialdean.

**NMFaren funtzioetan aldaketa**

• **Funtzio Erregulatzailea ⇨ G-7... eta baita G-20.**

• **Kreditu-funtzioa:**
Epe laburretik ➔ Epe luzera
Behin-behineko arazoetatik ➔ Egiturazko arazoetara

Kreditu-jarduera funtzio nagusian bilakatuko da
*Baldintzapekoa* ➔ EDE







➔ Bozka boterearen banaketa NMF eta Mban kuoten (ekarpenak) araberakoa da.
➔ Irizpidea: **1 $ = 1 bozka**

⇒ Iparrak menperatzen du
⇒ EEBBak beto eskubidea du erabaki garrantzitsuenetan (gehiengoa = %85)
➔ 2010ean erreforma proiektu bat adostu egin zen nahiz 2016an sartu zen indarrean. Erreforma honek ze *garapen bideko ekonomien* erabakitze-ahalmena areagotz... du baina Iparraldeko herrialdeen nagusitasuna zalantzan jarri barik.

**3.3. Mundu bankuaren papera.**

**Garapen ekonomikoa finantziatzen duen aldeanitzeko instituzio nagusia.**

Mundu mailako erakundea: 189 estatu-kide, egoitza Washington- en duela. Idatzi gabeko akordioa: MBko presidentea, estatubatuarra; NMFkoa, europarra.

Bost taldek osatu:

1. **BIRD (Berreraikuntza eta Garapenerako Nazionarteko Bankua):** Jatorriko erakundea eta taldeko burua. 1944an sortua. 189 kide. Garapen proiektu eta programak finantziatu egiten ditu merkatu baldintzetan.
2. **CFI:** Nazioarteko Finantza Korporazioa. 1956ean sortua. 184 kide. Garapen bideetako herrialdeetako sektore pribatuetan inbertsioak sustatu egiten ditu.
**EEBBtako lehen 5 korporazioak (enpresak) burtsa-kapitalizazioaren arabera**

| Posición | 1990 | 2000 | 2010 | 2017 |
|---|---|---|---|---|
| 1 | International Business Machines Corp. | General Electric Corp. | Exxon Mobil Corp. | Apple Inc. |
| 2 | Exxon Mobil Corp. | Exxon Mobil Corp. | Apple Inc. | Alphabet Inc. |
| 3 | General Electric Co. | Cisco Systems | Microsoft Corp. | Microsoft Corp. |
| 4 | Bristol-Myers Squibb Co. | Wal-Mart Stores Inc. | Berkshire Hathaway Inc. | Amazon.com Inc. |
| 5 | Merck & Co. | Microsoft Corp. | General Electric Co. | Facebook Inc. |

**Patente kopurua GAFAM-en askotariko jardueratan, 2009-2017.**

| | IA | Ciberseguridad | Vehículos no tripulados | RV/RA | Salud | Total |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Google | 300 | 650 | 500 | 400 | 42 | **14.596** |
| Amazon | >70 | 450 | 150 | 250 | algunos | **5.186** |
| Facebook | >70 | 90 | 10 | 600 | algunos | **2.508** |
| Apple | <30 | 530 | 70 | 250 | 40 | **13.420** |
| Microsoft | 270 | 900 | <70 | 600 | 120 | **16.840** |

IA: Inteligencia Artificial; RV/RA: Realidad Virtual y Realidad Aumentada.

# 5. GAIA: Finantza-globalizazioa, krisia eta austeritatea

## 5.1. Finantza-globalizazioa eta krisien errepikatzea.

➔ aurreztaile txikiaren aurretik, **finantza-merkatuetan operadore handiak, bankuak eta *instituzio inbertitzaileak* dira nagusi:** aseguru konpainiak, pentsio-funtsak eta inbertsio-funtsak (horien artean, arrisku handikoak edo *estaldurakoak*)

**Patrimonio de los fondos de inversión y los fondos de pensiones, 1990-2013**
(millardos de euro y porcentajes del PIB mundial)




➔ inbertsio-funts eta pentsio-funtsen artean 40,2 bilioi euro kudeatzen zituzten 2013 urtean, munduko BPGaren %75,5 beste.

➔ 20 talderik handienak zifra horren %40 baino gehiago darabilte: horietariko 9 bankuen jabegoa dira, 3 aseguru konpainiena eta soilik 8 dira independenteak.

➔ Garrantzitsuenak, herrialde hauetan: EEBB (BlackRock, Vanguard, JPMorgan), Alemania (Allianz, Deustche Bank), Frantzia (AXA, BNP Paribas), Erresuma Batua (HSBC) eta Suitza (UBS).

➔ Inbertsio-funtsean artean honako hauek dauzkagu:
- ***funts subirauak***, honelako estatuen jabego direnak: Norbegia, Saudí Arabia, Txina, Arabiar Emirerriak, Kuwait edo Singapur
- ***Arrisku handiko funtsak*** (***hedge funds*** edo estaldura-funtsak), zeinen jokabide espekulatzaileak eta hazkunde azkarrak zeresan handia ematen dien nahiz eta tamaina erlatiboki txikia duten (soilik bik 50 mila milioi $ baino gehiago kudeatzen dute)

**Activos gestionados por *hedge funds*, 1990-2012** (millardos de dólares)




Iturria: Hedge Fund Research

Hiru motako inbertsio instituzional desberdindu genituen: honetara dedikatzen diren enpresa handiak, eta ibilbideari finantza arloan duten partikularrek duten jokabideaz. Inbertsio txikiak finantza munduan, baina jokabideek hori aldatuz doa inbertsaileei begira eta hauek dira enpresa transnazionalak dira. Jabegoa daukan eta enpresa transnazionaletan eta esku gutxitan dagoela.

Pentsio fondoak: Inbertitzeko ibilgailu desberdinak, eta batzuk zein besteak bolumen aktibo mugitzen dituzte. Biek mugitzen zituzten bolumenak nahiko nabariak ziren herrialdeen mugitzen dituzten dibisen ondorioz fondo subirauak mugitzen dituztenak. Bi inbertsio hauek (Inbertsio funtsak eta pentsioak) nahiko nabariak direla eta 90 hamarkadatik aurrera haien bolumena igoz doa 2000 urtera igoera horrekin 2007ra arte. Ekonomiaren finantzazioa 90 baino aurretik etorritakoa. 2007-2008 jaitsi egiten da, krisiaren ondorioz eta ikara efektua sortzen du. Krisiek beldurra edo kutsatze edo jokabide bat dago, egiten diren inbertsioak seguruak dira baina ez finantza aktiboetan.

Pandemiarekin ia parekoa gertatu izan da. 2007an jaitsi eta 2008an berriz igotzen doaz. 2008tik aurrera hori gutxitu baino, igotzen jarraitu du modu apal batean. 2009an nazioarteko erakundeek halako hitzak bideratu zuten kapitalismoa ere berdin egin behar dela eta halakoak eta ekonomia ez izatea hainbeste finantzetan. Finantziarizazio prozesuak edo du etenik izan. 2008 krisiaren ondorioz eredu aldatuz saiatu zen baina ez da hori lortu, banka sistema

erregulazioa murriztu da baina ez da hainbestekoak izan. %40 gutxi batzuk kontrolatzen dute, bolumen horietako parte diren AEB edo Alemanian, Frantzian eta bestelako herrialdeetan kokatzen dira.

➔ ***itzaleko bankaren*** jarduera (bankuak ez diren finantza-bitartekariak, **erregulazio gabe**) **asko hazi da**, 2002 urtean 21 bilioi euro izatetik 2010an 46 bilioi eurotara, del orden de **un munduko finantza-sistemaren %25-30 g.g.b.** eta banku-aktiboen erdia (**EEBBetan banka komertzialaren gainetik dago**)

➔ *erregulazio ezari* esker, EEBBetako **inbertsio-bankuak *hedge funds* gisa aritu dira**, mozkin-tasak igoarazteko arrisku handiak bere gain hartuz.

**Estados Unidos: actividad financiera de la banca comercial y de otros agentes, 1990-2009** (billones de dólares)




## Atzerri-inbertsioaren pasibo metaketa




**Red de flujos financieros internacionales, 2008** (millardos de dólares)




McKinsey, 2009. Eguneratua: https://public.tableau.com/views/FinancialGlobalization_0/DynamicsVisualized?:embed=y&:display_count=yes&publish=yes&:showVizHome=no

➔ Nahiz eta *garapen bidetan dauden merkatuak* egon, **nazioarteko finantza-fluxuak Iparreko ekonomietan kontzentratzen** dira, bai sorburu zein helburu izanda.

**IBEX-35-aren bilakaera, 1987-2014**



➔ **finantzen erregulazio ezari esker, finantza-merkatuko operazio gehienek espekulazio-helburuak dauzkate**, bereziki *produktu deribatuekin* (azpiko aktibo baten araberako balioa) egindakoak etorkizun-merkatu, opzio- eta *swaps*-etan (trukeak)

⇒ askotariko **aktiboen gaineko burbuilak**, eztanda egiterakoan **finantza-krisiak eraginez**

➔ ***paradisu fiskalak*** *(off shore* guneak) globalizazio garaian bultzatutako **liberalizazio eta finantza-erregulazio ezaren ondorenean sortzen** dira
➔ **zergapetze eza eta transparentzia falta** (banku-sekretua) dira ezaugarri nagusiak, zeinek erraztu egiten duten ondare handien, ETNen, bankuen eta *instituzio-inbertitzaileen* zerga-ihesa.
➔ 2010 urtean **21 eta 32 arteko bilioi dolar** izkutatzen zituzten halako azpiko finantza-zirkuitu batean **80 baino gehiago ziren *jurisdikzio sekretuetan***
➔ **G-20ak ezabatzea proposatu zituen** 2009an, **baina oraindik diraute**









## 5.2. Atzeraldi Handia herrialde aurreratuetan.

Atzeraldi Handiaren egitura-aurrekariak

Álvarez, Luengo eta Uxó (2013):

1. Erreferentzia denboraldi luzea.
2. Krisiaren zergatien askotariko azalpena.
    1. Dirusarreren banaketan txarragotzea.
    2. Finantzarizazio-prozesu trinkoa.
    3. Asimetriak EB barnean.
    4. Desorekak agertu.
3. Ikuspegi europarra testuinguru globalean.
4. Arreta berezia euroaren sorkuntzaren gaineko ondorioei.
5. Zentro-periferia ikuspegia.
6. Ezberdintasun sozialen garrantzia.
7. Finantza krisi bat, baina ez soilik.
8. Begirada bat ekonomiatik, baina ez ekonomizista.
9. Politikak aldatu beharra eta alternatiba egingarrien existentzia.

Subprime hipoteken krisiaren azalpen bat

Finantza burbuila baten faseetan oinarrituta:

- Lekualdaketa (2001): i/t baxuak eta kredituak lortzeko baldintza errazagoak.
- Igoera (2001-2004): baldintza faboragarriei esker (i/t baxuak) higiezinen merkatua hedatzen da (prezioek gora).
    - Finantza tresna berria, *subprime* hipotekak: baliabide gutxiko biztanleriak kredituak lortzeko aukerak → inbertsio bankuek tituluetan bihurtzen dituzte hipoteka horiek (pakete desberdinetan sailkatzen dituzte -prime eta subprime-).
    - Kalifikazio agentziek pakete hauen kaudimena kalifikatzen dute.

1. Euforia (2004-2007): higiezinen merkatua hedatzen da arrazoi espekulatiboak direla eta. Mundu osoko inbertsio fondoek tituluak salerosten dituzte. Apalankamendu ratio altuak. Prezioak gorantz eta zor horiek ezinezkoak ordaintzean krisia areagotu.

2. Mozkinak jasotzen dira (2007ko uda): burbuilak eztanda egiten du: Bear Sterns bankuaren 2 hipoteka fondok porrota aitortzen dute → subprime hipoteken likidezia eza agerian geratzen da → mesfidantza zabaltzen da. Subprime krisia krisi finantzario batera eramaten gaitu, eta krisi finantzarioa dagoenean honek krisi ekonomikora eramaten gaitu BPGren murrizketa bezala (ekonomia erreala). Krisi ekonomia areagotzean diru sarrerak jaitsi eta horrek suposatzen du herrialde hoiek erreskatatuak izatea, zeri deitzen zaio honi? Herrialdeak krisi ekonomikoari aurre egiteko eta zor publikoa etetzeko eta kontrarrestatzeko gastu publikoa

murriztu egiten dute, Ongizate krisiaren krisi bat sortuz. Neurria bidea Europan austeritatea izan zen eta honek zor publikoa dagoela zehazten du, zeri lotuta? Krisi ekonomikotik etortzen delako eta erreskatearen baldintzen erruz. Uste zen errua ongizate estatuarena zela, sektore publikoaren narratiba gehiegizkoa zala eta iturburua arlo pribatuan baitdago:
Krisi sozial bat lortu duela esan ahal da. Pobreziaren hazkundea, prekarietatea, desjabetzea (etxeak); eta horrelakoak... Ongizate estatuaren krisia pairatu duguna gehiegizko “zor publikoan” dezente handitu delako eta margena baitzegoen kiri honi begira.

Eragin ekonomia ere zientzian, sektore produktiboan eta bestelako eraginetan izan duten efektua... Egin ez diren ikerketak pairatzen ari gara orain eta hurrengo urteetan pairatuko ditugu. Efektu ekonomiakok epe luzekoak badira hala nola 2008ko krisiak bestetik arlo pribatu zein publiko inbertsioak ez ziren burutu.

Subprime krisia+ Higiezinak → Krisi Finantzarioa sortu egin zuen eta honi aurre egiteko erreskateen bidez ateratzeko intentzioa izan zuen, krisi finantzarioa → Krisi ekonomikoa sortu zuen eta krisi ekonomikoa, hau da, ekonomia errealaren gaineko krisia eragina gehiegizko zor publikoa sortu zuen eta murrizketa I+D+I, zientzian..., ekonomian eragin zuzena duena, krisi hau krisi sozial bihurtu egiten da, pobrezia, desjabetzeak prekarietatea... krisi ekonomiko hau ongizate estatuan eragin zuzena izan zuen, ongizate estaturen krisia sortuz, azken batean zor publikoaren handitzeari erantzuna emateko ongizate estatuak sortzen dituen gastu publikoak murriztu zituen.

3. Ikara: mesfidantza mundu osotik hedatzen da: bankuek galerak aitortzen dituzte eta etxebizitzen balioak behera egiten du. AEB eta Europan porrotak hedatzen hasten dira.






Krisia ekonomia errealera hedatzen da

Finantza erakundeek neurriak hartzen dituzte sistemarenganako mesfidantza murrizteko:

- Bankuak erosten dituzte (Bear Sterns, Merril Lynch, AIG AEBetan).
- Bankuak esku hartzen dituzte (Fannie Mae eta Freddie Mac).
- Inbertsio banku batzuk banku komertzialetan eraldatzen dituzte (Goldman Sachs, Morgan Stanley).
- … eta beste banku batzuk erortzen uzten dituzte (Lehman Brothers).

• Erreserba Federalak i/t jaisten ditu, baina krisia ekonomia errealera pasatzen da (mozkinak murrizten dira, BPG jaisten da, desenplegua hazten da).
• Krisia mundu osora hedatzen da (“mundu globalizatura”, kasu honetan EB batik bat).

Krisiaren aurreko neurriak

. Hasieran gobernuek zikloaren aurkako neurriak hartu zituzten:

- Moneta politika hedatzailea: i/t murrizketa eta finantza erregulazioaren hobekuntza (inbertsio bankuen gaineko kontrol gehiago).
- Aurrekontu politika hedatzailea: Gastu publikoa (G) areagotu, zerga-tasen (t) murrizketa.
- Gainera, finantza erreskate planak burutzen dira kreditua egon dadin: herrialdeen arteko desberdintasunak.
    - AEB: gobernuak kutsatutako aktiboak erosten ditu kreditua bultzatzeko eta ondoren bankuak kapitalizatzen ditu.
    - Erresuma Batua: bankuen nazionalizazioa (partziala), kapitalizazioak.
    - Eurogunea: kapitalizazioak.

**Moneta eskaintzaren eragina interes tasetan**




Ardatz batean diru kopurua eta bestea diru tasa edo prezioa: Adibidez frutaren eskaera salmenta zentratuz eta bestetik hori hornitzailearekin akodio batera kantitate bat prezio batera uzteko. Interes tasa daude eta hor diru kantitatea dugu, banku zentralak finkaturik eta AEB erreserba federalak. Sistema dagoen diru kantitatea erregulatzen saiatzen da, moneta eskaria itxuran dauka eta interes tasa altuagoa zian orduan eskatua txikiagoa baina prezio baxuagoan eskatua askoz altuagoa. Diru kantitatea ere interes tasarekiko daukan itxura negatiboa edo malda negatiboa: Zenbat eta interes tasa altuagoa eskera txikia eta berriz tasa baxuagoa eskaera

handiagoa. Dirua merketu, interes tasa jaitsi eta diru gehiago sartu. Interes tasa baxuagoak dienean guk kontsumitzean hipoteka bat hartzea merkeagoa izango, pixgarriak daude zorpetzea murrizten delako baina zorpetzea merkeagoa denez pixgarri biak dauzkagu.

Inbertsio produktiboa: Enpresak baliatzen diren produkzioak areagotzea. Inbertsioa eskaria agregatuaren konponentea da eta enpresek burutzen dute expotazioaren artean netoak eta kontsumoak direnak. Orekan, berdin produkzioa izan behar da. Interesak jaitsiz interesa areagotuko da, adibidez hipoteka bat zorpetuz kontsumoa altuagoa izango da. Interes tasa beheruntz egitean, inbertsioa goruntz egingo du.

**Moneta politika hedatzailearen efektua ekoizpen eta prezioen gain: inbertsioa (I) eta eskari agregatua (DA)**




Da kurba eskaria eta SA eskari agregatua: Produkzioa handituko da eta prezioak ere, moneta politikak hedatzailea jarrera ekonomikoak igo edo areagotu. Zeinen kontura? Hazkunde tasa handitzea inflazio tasa altuagoak izaten dira eta krisi garaian kontrakoa prezioak murrizten dira: Deflazioa. Politika fiskalean bi aldagai: Zerga tasa jaitsi (t txikia) eta gastu publikoa handitu (G).

**Aurrekontu politika hedatzailearen eragina ekoizpen eta prezioen gain: inbertsioa (I), kontsumoa (C) eta eskari agregatua (DA)**




Gastu publikoa areagotzean, eskari agregatuaren kurba handitu eta prezioak handituz doaz.
t-a jaisteko, zerga desberdinak ditugu hori ekiditzeko. Orokortasun bati buruz hitz egiten dugu: gastu publikoa igo baina zein den arabera ez da berdina langabezia laguntzak igo edo TAVren gastu publikoa igotzea.
Krisi bati aurre egiteko hauek izango lirateke errezetak eta aplikatu zirenak.
Espainiako kasuan ez duen politika fiskalak hainbeste gaitasunik izan.

• Gainera, finantza erreskate planak burutzen dira kreditua egon dadin.

<u>Desberdintasunak aplikatutako neurrietan</u>

• AEB:
- Moneta politika hedatzaileak (i/t baxuak): kreditua bultzatu → I, C ↑ → DA ↑;
- $-aren debaluazioa.
- Defizit publikoa (hasiera batean, ondoren ezin arrazoi politikoak direla eta).

• Eurogunea:
- i/t altuagoak. Arrazoiak: EBZ-ren papera, inflaziorako arriskua, Alemaniaren presioa.
- €-a ez da debaluatzen.
- Politika fiskala aplikatzeko ezintasuna (zorra finantziatzeko zailtasunengatik).






### 5.3. Zor-krisia eta austeritatea euro-eremuan.

. Bankuen krisia (eta hauei loturiko erreskateak) BPG-ren jaitsiera (eta sarrera fiskalena) eta aplikatutako zikloaren aurkako pizgarri fiskalek: defizit publikoa eta zor publikoa igoarazi zituen.

• Defizit publikoaren bilakaera:
 • Europa.
 • BPGren %3 Eurogunean → Egonkortasun Ituna.

• Zor publikoa 20-30 puntutan igo zen Europan.

• Ze zor maila kontsideratzen da “jasangarria” izan daitekeela?
 • Garatutako ekonomietan: BPGren %60 (Eurogunean  Egonkortasun Ituna).
 • Garapen bideetan dauden ekonomietan: BPGren %40.

• Zorrak dakarren arriskua (Baldacci, Gupta eta Mulas-Granados, 2010):
 • Zikloaren aurkako neurriak hartzeko ezintasuna (ezin da zorra handitu).
 • Zorra jaulkitzean → i/t gora egiten dute → C eta I ↓, DA ↓, BPG ↓.
 • Zorra finantzatzeko baldintzak gogortzen dira, arriskua handitzen delako.




<u>Euroguneko krisia ulertzeko gako batzuk</u>

- Zorraren krisia bereziki gogorra izan da Europako herrialde batzuentzat: Portugal, Irlanda, Italia, Grezia eta Espainia (PIIGS).
- <u>Grezia</u>: 2009ko urrian, gobernuak kontu nazionalak faltsututa zeudela aitortu zuen: benetako defizit publikoa %12,5 eta zor publikoa %113 zela aitortu zuen → herrialdearenganako zalantzak → zorraren kalifikazioa jaisten da → zorra murrizteko plana martxan jarri, baina ez da nahikoa: 2010eko apirilean zor publikoaren interesa %10era igo zen.

  Hasieran Euroguneak ez zuen Grezia lagundu, baina ondoren erreskate planak erabaki ziren (2010eko maiatza eta 2011ko uztailan): 110.000 millioi € + 109.000 milioi € (EBZ eta NMF).
  Ondoren Irlanda (85.000 milioi €) eta Portugal (78.000 milioi €).
  Espainiako bankuen erreskatea (100.000 milioi €).
  Chipreko erreskatea (10.000 milioi €).

Arrisku primak eta zorra finantziatzeko arazoak

- Zor publikoa finantziatzeko arazoak:
    - Zorpetze maila oso altua da herrialde askotan.
    - Zorra merkatuetan finantzatzen da: arrisku primek zor publikoaren finantzaziorako prezioa determinatzen dute (10 urterako bonuak).
    - Arrisku prima herrialdearen ez ordaintzeko arriskuaren arabera aldatzen da.
    - Grezia, Irlanda, Portugal, Espainia eta Italiako arrisku primak izugarri igo ziren nahiz eta azken urteetan beherantz egin duten.
- Arrazoiak:
    - Egoera makroekonomikoa: defizit publikoa, zorra (publikoa eta pribatua), hazkunde aurreikuspenak, desenplegua, merkatal desorekak, demografia, etab.
    - Herrialdeen arteko kutsapen arriskua.
    - Arrazoi espekulatiboengatik.

Erreskateak eta baldintzak

Europar Finantza Egonkortasun Funtsa (FEEF, gazteleraz): finantza egoera larrian dauden herrialdeak laguntzeko mekanismoa.

• 780.000 milioi €. Horietatik, 440.000 milioi € maileguak emateko erabil daitezke.
• Finantzatzeko, zorra jaulkitzen du (bonoak).
• Estatuen zorra eros dezake, baina EBZren baimena behar du.
• Behin behineko mekanismoa izan zen (2012 urte arte). Ondoren, Europear Egonkortasun Mekanismoak ordezkatu du (Mecanismo Europeo de Estabilidad –MEDE-).

Herrialde batek erreskatea eskatzen duenean, zenbait baldintza ezartzen zaizkio.

Herrialdeak hartu behar dituen neurriak:

• Defizit publikoa eta zor publikoa murrizteko neurriak hartu: gastu publikoa jaitsi (azpiegiturak, hezkuntza eta osasuneko inbertsioa murriztu, langile publiko gutxiago, soldatak jaitsi, etab.), diru-sarrerak igo (zergak igo) → "murrizketak" eta "austeritatea".
• Lan merkatuaren erreforma.
• Pentsioen erreforma.
• Banku-finantza sistemaren erreforma (Irlanda, Espainia, Txipre).

Merkatuekin arazoa eta arazo politikoak

Nahiz eta erreformak egin arrisku primak altu egon dira, eta ondorioz Estatuek zorra finantzatzeko arazoak izan dituzte.

Merkatuek zorra murriztea eskatzen dute, baina nola murriztu zorra?

• Zorra = Zorra/BPG bada, 2 modu daude zorra murrizteko: (1) Defizita murriztea; edo (2) BPG igotzea.
• Problemak dituzten herrialde guztiek defizita murrizteko neurriak hartu dituzte ("austeritate" ala soiltasun politikak aplikatu):
    • Hauek ongizate sozialaren gaineko ondorio latzak dituzte (galeren sozializazioa).
    • Baina gainera, hazkunde ekonomikoa geldotzen dute: G↓ → DA↓ → BPG ↓.

Gainera, epe ertainean zorra murrizteko ahalmena kolokan jartzen du: nola murriztuko da zorra hazkunderik gabe (eta beraz diru sarrerarik gabe)?

1. BPGa areagotu (igo) Zorra baino, zorra murriztu ez zen aplikatu
2. Defizita murriztu: G- T+: Austeritatea. : Gastu murriztua eta zergetan eskuratzen dena igo.
3. Eurogunean ez dena egiten, Inflazioa sortu. Nola? Herrialdeen defizita finantzatuz. Estrategia ere, inflazioa sortzea ere izango ahalko zen. Europan ezin da aplikatu.
4. Erreformen bidez ere lortu ahal den (Luzera) aplikazioa: Eskera agregatuaren bitartez eta zer efektua sortzen duen epe txikietan.

Orain arte hartutako neurriak ez dira nahikoak izan euroguneko arazo ugari (sozialak, kasu) konpontzeko.

- Soiltasun neurriak hartu dira (G murriztea eta erreformak) baina…
- …Zorraren finantzazioa garesti mantendu da nahiz eta murriztu den (herrialdeen arrisku primak).
- …Hartutako neurriek ez badute hazkundea bermatu, eta honela, nola lortu zorra murriztea?

SA-arengan esku hartu dute gobernuek erreformen bidez, baina horrek zailtasunak ditu izan ohi ditu eta ondorio sozialak ere…

- …SA epe labur-ertainean aldatzea zaila da;
- Orokorrean, itxura neoliberaleko politikak jarraitu dira erreformetan (lan-arloan, zerbitzu publikoak, sektore produktiboak, …).

Nahiz eta oraintsu hazkunde ekonomiko tasa positiboak izan, bai arlo sozialean bai lan arloan egoera ez da krisi aurretik genuenaren parekora ailegatu:

- Disparekotasun handiagoak errentaren banaketan, prekarietatea lan arloan, zerbitzu publiko kaxkarragoak, eskubide sozialetan murrizketak, etab.

**Eskaintza Agregatuan (SA) esku hartzea**




Europako Banku Zentralaren papera

EBZk moneta politika kontserbakorra aplikatua du. 2015eko urtarrila arte!, orokorrean ez zuen zor publikoa masiboki erosi, finantza merkatuak lasai zezakeenak:

- Egonkortasun mekanismoen bidez, Greziaren zorra erosten hasi zen (2010eko maiatza), eta ondoren Italia eta Espainiakoa (2011ko abuztutik), baino erosketen bolumena nabarmenki jaitsi da.

- Zergatik?
    - Bere izaera dela-eta (inflazioaren aurkako borroka). Helburua: prezioen kontrola.
    - Inflazio arriskuarengatik.
    - Alemaniaren paperagatik:
        - Inflazioari beldurra (hiperinflazio gertaerak Alemanian).
        - Arrisku moraleko problemengatik: gaizki egin duten herrialdeak salbatuko baditugu (zorpetu ziren herrialdeak), ze pizgarri izango dute etorkizunean hobeto egiteko?
        - Alemaniak herrialdeek etorkizunean defizit publikoa izango ez dutelaren bermea nahi du.

Aitzitik, banku komertzialei likidezia eskaini die herrialdeen zor publikoa baino baxuagoa den i/t-an, eta ostean bankuok mailegu-emaile gisa azaltzen dira zor jaulkipenetara.

- Zentzu honetan banka komertzialaren alde egin du erabat.

Azkenean, 2015eko urtarrilean 2016 arteko plan bat onartu zuen (gerora hedatu zena) batik bat bono publikoen (zor publikoa) erosketa masiborako.

- Alemania ez da erabat ados agertu.
- Deflazio arriskua aldentzea du helburu.

2016ko urtarriletik interes tasa oso baxu mantentzen du, minimo historikoetan.

Zein izango lirateke "krisiaren aurkako" politika egokienak?

1) Austeritatetik hazkundera:
   • Moneta-politikaren mugak onartzea: zerga-politikaren erabilera kontzertatua.
      • Moneta-politikak ezin du bete austeritatearen hutsunea: disparekotasunak sortu dira.
      • Zerga-politika modu kontzertatuan erabili izan balitz ondorioak mugatuak izango lirateke.

   • Aurrekontu orekatuaren biderkatzailearen printzipioa onartzea.
      • Defizit-mugak izanda ere, gobernuek ekonomia suspertu dezakete:
         • BPGren gehikuntza, hau delako: G-ren efektu estimulatzailea > zergen gehikuntzaren uzkurdura-efektua.
2) Zorra berregituratzeko bidean:
   • (Aukera bakarra da, baztertu egin baitira beste biak Zorra/BPG ratioa murrizteko: (1) inflazioa sortzea; (2) BPG handitzea).
   • Epe luzeko arazoa bada, onena zorra zati batean onbideratzea da, ahalik eta azkarren.
   • Porrot lege nazionalak. NBE: zorra berregituratzearen inguruko printzipioak.
   • BPGrekiko bonu indexatuak?

EBren erantzun politikoa

• EB-ren erantzun politikoa ez da egokia izan.
   • Epe laburreko fokapena (defizit publikoa eta zor publikoa murriztu).
   • Defizit publikoa eta zor publikoa murrizteko epeak oso laburrak, baina horrek koste sozialak ditu eta ez du hazkundea bultzatzen.
   • Estatuek hartutako neurriak oso mingarriak izan dira biztanleentzat (Grezia kasu!): galeren sozializazioa "austeritate" politiken bidez.
   • Ez du hazkunde ekonomikoa bultzatzeko neurririk hartu (gastu publikoa, inbertsioak, etab.).
• EB-ren baitako disparekotasunak areagotu dira (Iparra Mediterraneoko herrialdeak).
• Eta guzti hori baino haratago, eta banka-sektoreaz beste, finantza sektoreak ez du eraldaketa potolorik jasan edota gutxienez ezta aldaketa egokirik jasan ere (kasu gehienetan, espekulazioak jarraitzen du izaten jokabidearen leitmotiv-a!); ezta "kapitalismoaren birsortze" bat ere gertatu. Zenbait herrialdek ere ez dute garapen ekonomikoko eredu eraginkorra eta "produktiboki" indartsua aurkitzen.

Eta Euroaren erreformari ekiten badiogu? "Euroa salba daiteke eta salbatua izan behar da, baina ez edozein preziotan" (Stiglitz, 2016):

EUROGUNEKO EGITURAZKO ERREFORMA:
1.- Finantza-sistema komuna (banku-batasuna):
   • Arauketa eta ikuskapen komunak.
   • Pixkanaka, gordailuen berme komuna.

2.- Zorra mutualizatzea:
   • EBZ: herrialde guztiek babestutako eurobonuak jaulki ditzake.
   • Arrazoiak: (1) ez ordaintzeko arriskua minimizatzen du; (2) integrazio ekonomikoa, elkarren babesik gabe?

3.- Egonkortasunerako esparru komuna:
   1) Esparru fiskal komuna eta aurrekontu-legeak hobetzea.
   2) Hazkunderako ituna, egonkortasun-funts solidario batek finantzatua.
   3) Egonkortzaile automatikoak.
   4) Malgutasuna kreditu sorreran.
   5) Ekonomia arautzea, gehiegikeriak saihesteko.
   6) Zerga-politikak egonkortzea.

4.- Benetako konbergentzia-politika (egiturazko berlerradura):

1) Kanpoko superabitak uxatu.
2) Soldatak zabaltzea eta zerga-politika hedakorrak superabitak dituzten herrialdeetan.
3) Gainerako politika dibergenteak baztertzea.

5.- Enplegu osoa eta hazkundea sustatuko dituen egitura

- EBZren helburua aldatzea (inflazioaren kontrola):
  - Helburua zabaltzea: Enplegu betea, hazkundea, egonkortasun ekonomikoa.
  - Finantza-sektorearen funtzionamendu egokia: ekoizpen-sektorera bideratutako likidezia.

6.- Egiturazko erreformak enplegu betea eta hazkundea lortzeko:

1) Gizartearen zerbitzura dagoen finantza-sistema.
2) Gobernantza korporatiboaren erreforma.
3) Gainzorpetze pribatua arintzeko neurriak (familiak, enpresak).
4) Ingurumen-inbertsioak sustatzea.

7.- Oparotasun komunaren aldeko konpromisoa: disparekotasuna murriztu.

1) EBko herrialdeen arteko dumping fiskala arautu/mugatu.
2) Europako mailako zerga ezarri errenta altuei. Posible al da?

---

## 5.4. Covid-19ak eragindako krisia.

- Bat-bateko inpaktua izan da, aurrekaririk gabekoa.
- Beste krisi ekonomiko batzuk ez bezala, izaera globala du.
- Ekonomia guztiei eta sektore ekonomiko askori eragin die:
  - Ondorio desberdinak, honako hauen arabera: kokapena; segmentu sozioekonomikoa; enplegu mota; …
- Sektore publikoari eragin dio:
  - Diru-sarrera fiskalen murrizketa + gastu publikoaren gehikuntza → defizit publikoaren gehikuntza → zor publikoaren gehikuntza.
- Hala ere, sektore galtzaileak eta irabazleak egon dira/daude:
  - *Galtzaileak:* bidaiak eta turismoa; ostalaritza; aeronautika; turismoa; …
  - *Irabazleak:* Ekonomia digitala eta komunikazioa (plataforma digitalak, banatzaileak, on-line salmentak, Amazon, etab.); farmazeutikoa; …

**Atzeraldi ekonomikoa (produkzioa)**

Table 1.1 *(continued)*
*(Percent change, unless noted otherwise)*

| | Year over Year | | | | Q4 over Q4[7] | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Projections | | | | Projections | |
| | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 |
| **World Output** | 3.5 | 2.8 | –4.4 | 5.2 | 3.1 | 2.7 | –2.6 | 3.7 |
| **Advanced Economies** | 2.2 | 1.7 | –5.8 | 3.9 | 1.7 | 1.5 | –4.9 | 3.8 |
| United States | 3.0 | 2.2 | –4.3 | 3.1 | 2.5 | 2.3 | –4.1 | 3.2 |
| Euro Area | 1.8 | 1.3 | –8.3 | 5.2 | 1.1 | 1.0 | –6.6 | 4.8 |
| Germany | 1.3 | 0.6 | –6.0 | 4.2 | 0.3 | 0.4 | –5.2 | 4.6 |
| France | 1.8 | 1.5 | –9.8 | 6.0 | 1.4 | 0.8 | –6.7 | 4.0 |
| Italy | 0.8 | 0.3 | –10.6 | 5.2 | 0.1 | 0.1 | –8.0 | 3.4 |
| Spain | 2.4 | 2.0 | –12.8 | 7.2 | 2.1 | 1.8 | –10.8 | 6.6 |
| Japan | 0.3 | 0.7 | –5.3 | 2.3 | –0.3 | –0.7 | –2.3 | 0.7 |
| United Kingdom | 1.3 | 1.5 | –9.8 | 5.9 | 1.4 | 1.1 | –6.4 | 3.7 |
| Canada | 2.0 | 1.7 | –7.1 | 5.2 | 1.8 | 1.5 | –5.9 | 4.9 |
| Other Advanced Economies[2] | 2.7 | 1.7 | –3.8 | 3.6 | 2.3 | 2.1 | –4.2 | 5.0 |
| **Emerging Market and Developing Economies** | 4.5 | 3.7 | –3.3 | 6.0 | 4.3 | 3.8 | –0.5 | 3.6 |
| Emerging and Developing Asia | 6.3 | 5.5 | –1.7 | 8.0 | 6.1 | 5.1 | 2.2 | 3.6 |
| China | 6.7 | 6.1 | 1.9 | 8.2 | 6.6 | 6.0 | 5.8 | 3.9 |
| India[3] | 6.1 | 4.2 | –10.3 | 8.8 | 5.5 | 3.1 | –4.0 | 1.4 |
| ASEAN-5[4] | 5.3 | 4.9 | –3.4 | 6.2 | 5.3 | 4.6 | –2.1 | 5.2 |
| Emerging and Developing Europe | 3.3 | 2.1 | –4.6 | 3.9 | ... | ... | ... | ... |
| Russia | 2.5 | 1.3 | –4.1 | 2.8 | 2.9 | 2.2 | –4.5 | 2.8 |
| Latin America and the Caribbean | 1.1 | 0.0 | –8.1 | 3.6 | –0.2 | –0.3 | –6.5 | 2.1 |
| Brazil | 1.3 | 1.1 | –5.8 | 2.8 | 0.8 | 1.6 | –4.7 | 1.7 |
| Mexico | 2.2 | –0.3 | –9.0 | 3.5 | 1.2 | –0.8 | –7.0 | 2.7 |
| Middle East and Central Asia | 2.1 | 1.4 | –4.1 | 3.0 | ... | ... | ... | ... |
| Saudi Arabia | 2.4 | 0.3 | –5.4 | 3.1 | 4.3 | –0.3 | –5.2 | 6.6 |
| Sub-Saharan Africa | 3.3 | 3.2 | –3.0 | 3.1 | ... | ... | ... | ... |
| Nigeria | 1.9 | 2.2 | –4.3 | 1.7 | ... | ... | ... | ... |
| South Africa | 0.8 | 0.2 | –8.0 | 3.0 | 0.2 | –0.6 | –5.5 | 1.0 |
| *Memorandum* | | | | | | | | |
| Low-Income Developing Countries | 5.1 | 5.3 | –1.2 | 4.9 | ... | ... | ... | ... |
| Middle East and North Africa | 1.2 | 0.8 | –5.0 | 3.2 | ... | ... | ... | ... |
| World Growth Based on Market Exchange Rates | 3.1 | 2.4 | –4.7 | 4.8 | 2.6 | 2.3 | –3.0 | 3.7 |

Iturria: IMF (2020)

**Nazioarteko merkataritzaren eta prezioen bilakaera**

Table 1.1 *(continued)*
*(Percent change, unless noted otherwise)*

| | Year over Year | | | | Q4 over Q4[7] | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Projections | | | | Projections | |
| | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 |
| **World Trade Volume (goods and services)** | 3.9 | 1.0 | –10.4 | 8.3 | ... | ... | ... | ... |
| Imports | | | | | | | | |
| Advanced Economies | 3.6 | 1.7 | –11.5 | 7.3 | ... | ... | ... | ... |
| Emerging Market and Developing Economies | 5.0 | –0.6 | –9.4 | 11.0 | ... | ... | ... | ... |
| Exports | | | | | | | | |
| Advanced Economies | 3.5 | 1.3 | –11.6 | 7.0 | ... | ... | ... | ... |
| Emerging Market and Developing Economies | 4.1 | 0.9 | –7.7 | 9.5 | ... | ... | ... | ... |
| **Commodity Prices (US dollars)** | | | | | | | | |
| Oil[5] | 29.4 | –10.2 | –32.1 | 12.0 | 9.5 | –6.1 | –26.1 | 6.2 |
| Nonfuel (average based on world commodity import weights) | 1.3 | 0.8 | 5.6 | 5.1 | –2.3 | 4.9 | 10.3 | –0.5 |
| **Consumer Prices** | | | | | | | | |
| Advanced Economies | 2.0 | 1.4 | 0.8 | 1.6 | 1.9 | 1.4 | 0.8 | 1.5 |
| Emerging Market and Developing Economies[6] | 4.9 | 5.1 | 5.0 | 4.7 | 4.5 | 5.1 | 3.5 | 4.1 |
| **London Interbank Offered Rate (percent)** | | | | | | | | |
| On US Dollar Deposits (six month) | 2.5 | 2.3 | 0.7 | 0.4 | ... | ... | ... | ... |
| On Euro Deposits (three month) | –0.3 | –0.4 | –0.4 | –0.5 | ... | ... | ... | ... |
| On Japanese Yen Deposits (six month) | 0.0 | 0.0 | 0.0 | 0.0 | ... | ... | ... | ... |

[4]Indonesia, Malaysia, Philippines, Thailand, and Vietnam.
[5]Simple average of prices of UK Brent, Dubai Fateh, and West Texas Intermediate crude oil. The average price of oil in US dollars a barrel was $61.39 in 2019; the assumed price, based on futures markets, is $41.69 in 2020 and $46.70 in 2021.
[6]Excludes Venezuela. See country-specific note for Venezuela in the "Country Notes" section of the Statistical Appendix.
[7]For World Output, the quarterly estimates and projections account for approximately 90 percent of annual world output at purchasing-power-parity weights. For Emerging Market and Developing Economies, the quarterly estimates and projections account for approximately 80 percent of annual emerging market and developing economies' output at purchasing-power-parity weights.

Iturria: IMF (2020)

EBaren erantzuna

Hasieran (2020ko martxoa-apirila), neurriak bi norabidetan:

1) EBZaren hedapen kuantitatiboko politika:
   - EBZak bankuetan interes oso baxu edo negatiboetan sartzen duen diru-kopuru izugarria: gero, bankuek gobernuei, familiei edo enpresei mailegatzen diete dirua.
   - 2020ko martxoa: Larrialdi Pandemikoko Erosketa Plana (PEPP):
   →750.000 M euro (aurretik 120.000 M mobilizatu zituen) eta 2020ko ekainean 600.000 M euro gehiago.

2) Europako Batzordeak estatu kideentzako finantzaketa-mekanismoak adostu zituen. Krisi Pandemikoari Laguntzeko Plana, 3 mailegu-programen bidez (540.000 M euro):

   - MEDE (Egonkortasunerako Europako Mekanismoa): kredituak eskatzen dituzten herrialdeei; gehieneko zenbatekoa: herrialde bakoitzeko BPGaren % 2; kredituak jasotzeko baldintza-maila handia. 2008an krisialdian Espainiako finantza-sistema erreskatatzeko erabilitako mekanismoa.
   - EIB (Europako Inbertsio Bankua): kreditu-lerroak; 200.000 M euroko zuzkidura Europako ETEen abalak estaltzeko.
   - SURE programa: eskatzen duten herrialdeentzako maileguak; langileak eta enplegua babesteko programen kostuak finantzatzeko; 100.000 M euroko zuzkidura.

• Akaso aldaketa esanguratsuak dira 2008ko krisiaren erantzunarekin alderatuta?

**Next generation?* Aldi baterako finantza-laguntzako tresna, MFP 2021-2027ren esparruan.

| | *MFP* | *NextGenerationEU* | *TOTAL* |
|---|---|---|---|
| 1. Mercado único, innovación y economía digital | 132 800 | 10 600 | 143 400 |
| 2. Cohesión, resiliencia y valores | 377 800 | 721 900 | 1 099 700 |
| 3. Recursos naturales y medio ambiente | 356 400 | 17 500 | 373 900 |
| 4. Migración y gestión de las fronteras | 22 700 | - | 22 700 |
| 5. Seguridad y defensa | 13 200 | - | 13 200 |
| 6. Vecindad y el mundo | 98 400 | - | 98 400 |
| 7. Administración pública europea | 73 100 | - | 73 100 |
| TOTAL MFP | 1 074 300 | 750 000 | 1 824 300 |

*Todos los importes en millones de euros. Fuente: Comisión Europea*

| | |
|---|---|
| SURE / Salvaguardia de apoyo ante la crisis pandémica del MEDE / Fondo de Garantía del BEI para Trabajadores y Empresas | 540 000 millones EUR |
| Next Generation EU | Refuerzo temporal<br>750 000 millones EUR |
| Marco financiero plurianual | 1,1 billones EUR |

Next Generation EU Plana: 750.000 M euro.
- Proposamena: 500.000 M transferentzia edo diru-laguntza eta 250.000 M mailegu.

Batzordearen proposamena: 750.000 M euroak hainbat programaren bidez banatuko lirateke:
- Berreskuratze- eta Erresilientzia-mekanismo Europarra: 560.000 M euro:
  - 350.000 M transferentzia eta 250.000 M kreditu.

Finantzaketak, bide bikoitza:

1) Europar Batasunaren betebeharren jaulkipena (zerbait berria). Gehienez ere 30 urterako bonuak jaulkiko dira.

2) Zerga berriak sortzeko proposamena (2018ko maiatzetik aurrera):

   - Karbono-tasa bat mugan.
   - Isurketen merkataritzarako tasa bat.

- Tasa digitala.
- Plastikoaren gaineko zerga.
- Enpresa handien zerga.

- Next Generation EU martxan jarriko da **hiru oinarriren** arabera:



*Fuente*: Comisión Europea.

<u>Finantzazioa eta baliabideak</u>

**EBren eta NextGenerationEUren epe luzeko aurrekontuaren finantzaketa.**
• MFPa EBren baliabideen bidez finantzatuko da.
• Europar Batasunak maileguak lortuko ditu merkatuetan NextGenerationEU finantzatzeko, estatu kide askok baino kostu hobeetan, eta zenbatekoak birbanatuko ditu.
• Batzordea maileguak hartzen hasteko, Kontseiluak hartu eta estatu kideetako estatuetako Parlamentuek berretsi behar dute baliabide propioei buruzko Erabakia.

**Maileguak itzultzen laguntzeko baliabide propio berrietarako ibilbide-orri argia**.

Batzordeak, beranduenez 2021eko ekainean, honako hauei lotutako baliabide propioei buruzko proposamenak aurkeztuko ditu:
• Karbono-isurketen mugako doikuntza-mekanismo bat,
• Zerga digitala,
• EBren isurketa-eskubideen merkataritza-araubidea.

Beranduenez 2024ko ekainean, Batzordeak diru-sarrera berriak proposatuko ditu, hala nola:
• Finantza-transakzioen gaineko zerga.
• Enpresa-sektoreari lotutako finantza-ekarpena.
• Sozietateen gaineko zergaren zerga-oinarri komun berri bat.

<u>Hurrengo etapak</u>

. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, orain, formalki onartu behar dituzte, dagozkien eginkizun eta prozeduren arabera, 2020ko azaroaren 10ean onartutako MFP Erregelamendua eta Erakunde arteko Akordioa.

. Aldi berean, paketearen gainerako elementu guztiak behin betiko onartzeko lanekin jarraitu behar dute, sektoreko legeria eta baliabide propioei buruzko erabakia barne.

. Baliabide propioei buruzko erabakia, Batzordeari NextGenerationEU finantzatzeko maileguak lortzea ahalbidetuko liokeena, EBko herrialde guztiek berretsi behar dute, beren konstituzio-eskakizunen arabera.

<u>Balorazioa</u>

- Testuingurua.
  • Negoziazioak: herrialde arinak (Herbehereak, Austria, Danimarka, Suedia) vs. Hegoaldeko herrialdeak (Italia, Espainia, ..).

- Kopurua ez-nahikoa eta eredu zalantzagarria.
  • Europako Parlamentuak 2 bilioi euro eskatu zituen.

- Zalantzak funtsak noiz banatuko diren.
  • Epeak eta konpromisoak beteko dira?

- Baldintza-maila handia.
  • Funtsak jasotzen dituzten herrialdeek Egonkortasun eta Hazkunde Ituna (EHI) betetzen jarraitu beharko dute.
  • Baliabideak zertara bideratu erabakitzeko autonomia nahikorik ez herrialdeek.

- Zor publikoa handitzea.
  • Zor publikoak gora egingo du, 2008ko krisian baino dezente handiagoak diren mailetatik abiatuta.

- Zerga berriak.
  • Beteko al da zerga berrien proposamena?
  • Baina gastuen gutxieneko zati bat estaltzea baino ez luke lortuko: 44.300 M euro/urte.

Alternatibak

• Tratatuaren 123. artikulua indargabetzea?
  • EBZak gobernuen zuzeneko finantzaketa burutzea debekatzen du.

• Aurrekontu-esparrua haustea.
  • Defizit publikorako malgutasun handiagoa ahalbidetzea.

• Baldintzazkotasuna ezabatzea.

• Zor publikoari buruz:
  • Zor publikoaren auditoretza.
  • Ordaintzeko epea luzatzea.
  • Zor ez-legitimoa kitatzea.

• Covid tasa bat ezartzea?

• Paradisu fiskalak eraistea.

# 6. GAIA: Mundu ekonomiaren erronkak

### 6.1. Pobrezia, disparekotasunak eta krisi ekologikoa.

• Nola heldu behar diegu globalki disparekotasun hazkorrei eta kapitalismoaren inoizko krisi ekologiko nagusienari?

---

### 6.2. Agenda 2030: Giza garapena eta Garapen Iraunkorra.

• Nazio Batuek ezarri (2015eko iraila):

- Milurteko Garapen Helburuak (2000)-en gaineko hausnarketa prozesua eta gero.
- 2030 urte arteko "garapen" agenda ezarri nahi.
- Dokumentua: Transformar nuestro mundo: la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible.




**Garapen Iraunkorreko Helburuak**

**1.** Munduko **pobrezia** modu guztiak desagerrarazi.
**2. Gosea** desagerrarazi, elikadura-segurtasuna lortu, nutrizioa hobetu eta nekazaritza iraunkorra sustatu.
**3.** Bizimodu **osasuntsua** ziurtatu eta pertsona guztien ongizatea sustatu adin guztietan.
**4.** Kalitatezko eta bidezko **hezkuntza** bermatu eta pertsona guztiek ikasketa etengaberako aukera izan dezaten sustatu.
**5. Genero-berdintasuna** eta emakume eta neska guztien ahalduntzea lortu.
**6.** Pertsona guztientzako **ura** eta saneamendua eskura izango direla eta modu iraunkorrean kudeatuko direla bermatu.
**7.** Pertsona guztiei **energia** lorgarria, segurua, iraunkorra eta modernoa eskuratzeko aukera bermatu.
**8. Hazkunde ekonomiko** jarraitua, barne-biltzailea eta iraunkorra; enplegu betea eta produktiboa; eta pertsona guztientzako lan duina sustatu.
**9.** Azpiegitura erresilienteak garatu, **industrializazio** barne biltzailea eta iraunkorra sustatu eta berrikuntza bultzatu.
**10.** Bai herrialdeen barnean bai herrialdeen arteko **disparekotasunak** murriztu.

Iturria: Nazio Batuak (2015): *Transformar nuestro mundo: la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible.*

5

**11. Hiriak** eta giza kokalekuak barne biltzaileak, seguruak, erresilienteak eta iraunkorrak izan daitezen lortu.
**12. Kontsumo- eta ekoizpen**-jarraibide iraunkorrak ziurtatu.
**13. Klima-aldaketari** eta horren inpaktuei aurre egiteko premiazko neurriak hartu.
**14. Ozeanoak**, itsasoak eta itsasoko baliabideak babestu eta modu iraunkorrean erabili garapen iraunkorra lortzeko.
**15. Lur-ekosistemak** babestu, berreskuratu eta haien erabilera iraunkorra sustatu, basoak modu iraunkorrean kudeatu, basamortutzeari aurre egin, lurraren narriadura gelditu eta leheneratu, eta biodibertsitate galera gelditu.
**16. Gizarte baketsuak** eta barne biltzaileak sustatu garapen iraunkorrerako, pertsona guztiei justizia izateko bideak erraztu, eta erakunde eraginkor, arduratsu eta barne biltzaileak eratu maila guztietan.
**17.** Garapen iraunkorrerako mundu mailako **lankidetza itunak** biziberritu eta horretarako baliabideak indartu.

Iturria: Nazio Batuak (2015): *Transformar nuestro mundo: la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible.*

Helburuak 3 multzo nagusitan sailka daitezke:

1. Pertsonak. Zuzenean ala era ez zuzenean giza beharrizanen asebetetzera laguntzen dute (jarduera ekonomikoa giza beharrizanen menpe dagoela ulertuta): 1-5 helburuak (pobrezia; elikadura; osasuna; hezkuntza; generoa) eta 7-10 helburuak (energia; hazkundea eta enplegua; azpiegiturak, industrializazioa, berrikuntza; disparekotasuna).

2. Pertsonak eta planeta. Bi azpitaldetan bana daitezke ikuspegiaren arabera. Batetik, modu integralean jasotako helburuak: 6 helburua (ura) eta 11 helburua (hiriak). Bestetik, ondasun komunen maneiurako bultzatutako aldaketa instituzionalen aldaketak: 16 helburua (bakea eta gizarte barne biltzaileak) eta 17 helburua (mundu mailako lankidetza ituna).

3. Planeta. Planetaren "osasunarekin" erarik zuzenean erlazionatuta daudenak: 12-15 helburuak (kontsumo- eta ekoizpen-jarraibideak; klima-aldaketa; ozeanoak; lur-ekosistemak eta biodibertsitatea).

EZAUGARRIAK:

• Unibertsaltasuna.

• Ikuspegi integratua.

• Izaera transformatzailea.

• Zehar-ardatzak helburu guztietan: ingurumen-iraunkortasuna eta disparekotasunak.

KRITIKA OROKORRAK:

• Hiritargoaren partaidetza, zalantzazkoa.

• Egungo botere banaketaren isla.

• Hazkunde ekonomikoak gidatzen ditu GIHak.

• Helburu nagusien zehazgabetasuna eta horiei lotutako helburu konkretuena ere.

• Neurketarako adierazle sistema ahula eta osatu gabea.

• Finantziazioren inguruko konpromezurik eza.

**Garapen Iraunkorraren inguruko KRITIKAK**:

• Helburuen arteko koherentzia eza: 8 helburua, "hazkunde ekonomiko jarraitua" bilatzen duena, ez dator bat planeta multzoko helburuen lorpenarekin: 12-15 helburuak.

• Oinarrian, iraunkortasun ahularen printzipioa.

> Askotariko dimentsioekin bat datozen hainbeste helburu kontsideratzeak, praktikan, dimentsio ezberdinak parekatzeko bide ematen du.

• Hazkunde ekonomikoa bide helburuen lorpenerako.

> Ohiko garapen ereduak, egungo terminotan izaki, ingurumen-narriadura iraunaraziko du.

---

**6.3. Bestelako erronkak.**

- Covid-19ak eragindako krisia.
  - Nola aurreikusi pandemia berriak?
- Gobernantza globala.
  - Nola uztartu Hiperglobalizazioa – Estatu-nazioa – politika demokratikoa?
- Finantza globalen kontrola eta paradisu fiskalen deuseztapena.
  - Nola kontrolatu estatu mailatik ekintza maila globala dena?
- Inteligentzia artifiziala eta ekonomiaren errobotizazioa.
  - Nola harrapatu aurretik doazen enpresa (transnazionalak)?
- BRICSen integrazioa nazioarteko ordena ekonomikoan.
  - Nola, zertarako, norena?
- Demografia eta nazioarteko migrazio-fluxuak.
  - Nola kontrolatu… maila globalean, herrialde garatuetan, garapen bidetan dauden herrialdeetan?